




**UDALERRIETAN EZARTZEKO
ETA ERABILTZEKO
GIDA PRAKTIKOA**



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

www.euskadilagunkoia.net



EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK

EZARTZEKO ETA ERABILTZEKO GIDA PRAKTIKOA

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Matia Institutuko lantaldea:

Landa-lana eta udalerrietako garapen-arduradunak

Ainara Tomasena

Aitziber Indart

Garazi Elortza

Lorena Llana

Koordinazioa eta diseinua:

Elena del Barrio

Zuzendaritza zientifikoa:

Mayte Sancho Castiello

Laguntza teknikoa:

Matia Institutua



Sustraietatik

OMEk abiarazi zuen, 2005ean, mundu osoko herrialdeetan gauzatzen ari den "Age-friendly Environments Programme" ekimena, eta hemen, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadi Lagunkoia Sustraietatik izena jarri diogu.

Proiektua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jarri du martxan eta bere helburua erakundeak, eragileak eta pertsonak mobilizatzea da, gure auzo, herri eta hiriak gune lagunkoi bihurtzeko asmoz, oztopo fisikorik gabe bizitzea eta pertsonen arteko trabarik gabe bizikidetzan egotea lortzeko.

Ekimenak adinekoak ditu protagonista, baina, aldi berean, herritarren partehartzearen ideia nabarmentzen du, zeregin horretarako ahalik eta pertsona gehien behar direlako, horien adina edozein izanda ere.

Azken bi hamarkadetan funtsezko aldaketak izan dira euskal biztanleriaren egituran. Adinekoei zuzendutako gizarte politikek 60 urteko eta gehiagoko egungo belaunaldien eskaera eta behar berrietara egokituz joan behar izan dute.

Osasuna hobetzeari eta ohitura osasungarriak hartzeari esker, bizi itxaropena luzatu egin da. Pertsonak orain dela hamarkada batzuk baino askoz ere egoera fisiko hobean iristen dira lan erretiroa hartzeko adinera eta bizitzako garai hau proiektu berriei ekiteko, osasun fisikoa eta burukoa zaintzeari denbora gehiago eskaintzeko eta bizitzaren aurreko aldian egin ezingo liratekeen jarduerak egiteko aukera gisa ikusten da.

Eusko Jaurlaritzak zahartze prozesuari heltzeko modu berriak lantzen dihardu, erantzukidetasun soziala oinarritzat hartuta eta autonomia zahartuz doazen biztanleen artean sustatu beharreko balio gisa aitortuta.

Adinekoentzako arreta-politiken paradigma berriak orain dela urte batzuetara arte zahartzaroarekin erlazionatuta zeuden kontzeptuak gaingitu behar ditu, besteak beste, menpekotasuna, gabezia eta gaixotasuna, eta beste ideia batzuekin ordeztu, adibidez, gizarte partaidetza, esperientzia, ahalmena eta belaunaldi arteko elkartasuna.



Euskadi Lagunkoia Sustraietatik tresna eraginkorra da pertsona eta komunitateentzat, bizi kalitatea hobetzeko beren ahalmen guztia ustiatzen eta gizartean beren behar, nahi eta gaitasunen arabera parte hartzen laguntzen baitie; horrez gain, laguntza, babesa eta segurtasuna eskaintzen die eta mugimendu honen eragile nagusi bihurtzen dira, proiektuaren garapenaren protagonista, eredu eta gidari baitira.

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik proiektuarekin norberaren erantzukizuna, belaunaldi arteko topaketa eta elkartasuna eta ingurune onuragarrien sorrera sustatu eta orekatu nahi ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da tartean diren eragile guztiek parte hartzea, ez bakarrik kontuan hartu ohi ditugun sektoreak (osun sistema eta gizarte zerbitzuak), baizik eta baita beste hainbat ere (hezkuntza, lana, etxebizitza, garraioa, gizarte segurantza, justizia eta landa eta hiri garapena), erabakigarriak baitira biztanleen bizi kalitatea bermatzeko.

Donostiak, Bilbok eta Gasteizek OMEren ekimenarekin bat egin zuten eta lagunkoitasantzaren aldeko programak garatzen jarraitu dute, bakoitzak bere kabuz. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik proiektuaren lan planteamenduak ahalegin handia es-

katzen dio Eusko Jaurlaritzari mugimendu hau Euskadiko herri, ingurune eta hiri guztietan sustatzeko. Zeregin horretan, pertsonetik bere konpromisoari helduko dio; udalerrri txikiagoei ekimenari atxikitzen lagunduko die; udalerrriak ez ezik, zeharka esparru pribatu, publiko eta sozialetako erakundeak eta pertsonak ere biltzen dituen sare bat sustatuko du; eta udal, elkarte, enpresa eta biztanleekin sarean lan egingo du, helburu beraren alde, hots, bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko bizi inguruneak sortzea.

Hemen aurkezten dugun gida honen helburua Euskadiko udalerrri guztiak lagunkoitasantz mugimenduarekin bat egitera bultzatzea da, horretarako gakoak eta tresnak eskainiz. Programa Euskadiko 15 udalerrri pilotutan ezarri ondoren egin da dokumentu hau. Pilotaje horrek lurraldeen lagunkoitasantz aurrera egiteko beharrezko metodologia eta tresnak diseinatzeko, aztertzeko eta praktikan jartzeko balio izan du. Orain Euskadiko udalerrri, hiri eta herri guztien esku jarri dira, horietako biztanleen bizi kalitatea hobetzeko bidean laguntza eta orientazio gisa erabil ditzaten, ikerketa-ekintza prozesu parte-hartzaile bat sustatuz, elkarren artean aurrera egiteko eta ikasteko.



AURKIBIDEA

EDUKIA

EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK	09
OMEren ESPARRUAN eta zahartze aktiboaren paradigaren BAITAN	11
Lan metodologia: 4 FASEko zikloa	14
Metodologia behetik gora (Bottom-up)	16
8 ikerketa/ekintza eremuak	18
UDALERRIETAN NOLA EZARRI, EGIN BEHARREKO URRATSAK	20
ALDEZ AURREKO BALDINTZA: Euskadi Lagunkoiarekin eta WHO Global Network of Age-Friendly Cities And Communities ekimenarekin bat egitea	21
1. PAUSOA: Diagnostikoa eta Lagunkotasun Plana	22
DIAGNOSTIKOA: METODOLOGIA ETA TRESNAK	22
A. Bigarren mailako iturrien azterketa	24
B. Talde fokalak, herritarren topaketak eta sakoneko elkarrizketak	26
C. Lagunkotasun galde-sorta	38
HOBETZEKO EREMUAK	48
LAGUNKOITASUN PLANA	49
2. PAUSOA: Ekintzen ezarpena	50
Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak	50
Nire auzoa maite dut	50
Toki lagunkoien mapa	51
Garraioa	52
Gidari Lagunkoia	52
Garraio lagunkoiaren gida	52
Etxebizitza	52
Etxebizitza eta ingurune lagunkoien gida	52
Auzokoen arteko laguntza: Auzokoa Lagun	52



Parte-hartzea eta Gizarte Sarea	53
Denboraren bankua	54
Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua	54
Errespetua eta Inklusioa	55
Establezimendu Lagunkoia	55
Ondarea	56
Komunikazioa eta Informazioa	57
Estereotipoei buruzko gida	57
Euskadi Lagunkoia Sustraietatik web ataria	57
Gizarte eta Osasun Zerbitzuak	58
Zahartze aktibo eta osasuntsurako gida	58
3. PAUSOA: Ebaluazioa	59
Ebaluazio adierazle kuantitatiboak	59
Ebaluazio adierazle kualitatiboak	65
4. PAUSOA: Etengabeko hobekuntza	66
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA KONTSULTARAKO WEB ORRIALDEAK ..	67
ESKEMA OROKORRA	70
1. ERANSKINA: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimeneko udalerrri pilotuak	73
2. ERANSKINA: Atxikitze gida	75
3. ERANSKINA: Lehen pausorako materialak	76
Diagnostikoa eta Lagunkoitasun Plana	76
Lagunkoitasun Plana	77
EUSKADI LAGUNKOIA WEB ORRIALDEKO ESHEMA	79



1



ZER DA ETA ZER ONURA DITU?

- OMEren esparruan eta zahartze aktiboaren paradigmen baitan
 - Udalerrietako lan metodologia
 - Behetik gorako metodologia (Bottom-up)
 - 8 ikerketa/ekintza eremu



EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak martxan jarritako ekimen bat da, eta helburu gisa herritarren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren parte-hartzea sustatzea da, Euskadin zahartzen diren pertsonen bizitza erraztuko duten inguruneak sustatzeko lagunkoitasun mugimendu bat garatzeko asmoz.

Proiektu hau Osasunaren Mundu Erakundeak sustatuko *Age-friendly Environments Programme* ekimenean oinarritzen da.

Zer da?

“Adineko pertsonetik hiri lagunkoi bat zahartze aktiboa sustatzen duen hiri ingurune integratzailea eta irisgarria da”.

Helburuak:

- Adineko pertsonen Euskadiko herri eta hirietan ongizatea sortzeko duten potentziala aprobetxatzea.
- Komunitateko parte-hartze prozesuak sortzea eta sustatzea.
- Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat sortzea.
- Herritarren bizi kalitatea hobetze aldera, inguruneetan aldaketak egin daitezela ahalbidetzea.

Biztanleriaren zahartzeak munduko herrialde guztietan sorrarazten dituen erronkak elkarren osagarri izan daitezkeen bi ikuspegitatik azter daitezke: aberastasuna sortzeko aukera gisa edo zahartutako gizarte baten ongizateak sorrarazten duen gastuarengatik kezka gisa. Bi ikuspegiak prozesu hau lehenetsunez aztertu, ikertu eta esku hartu beharreko alderdi gisa lantzen dute, aukera sozioekonomikoak sortze aldera.

Euskadin gertakari horrek are garrantzia handiagoa hartzen du, EAEn dugun bizi itxaropen altua kontuan hartuta. Adineko pertsonen multzoak (gehienak lan merkatutik kanpo dagoeneko) duen potentzial handiak eragina izan behar du gizartearen ongizatean, eta are gehiago krisi garaian. Adineko pertsonen lehendik ere ongizatea sorrarazten dute, beren seme alabei bilobak zaintzen lagunduz, familiari ekonomikoki lagunduz, egungo



langabezia tasa altuaren ondoriozko arazo sozialak gutxituz (eta, beraz, gure sistema babestuz) eta elkarte edo erakundeetan borondatezko lana eginez. Krisi garaian, inoiz baino gehiago, adineko pertsonak gizarte konpromisoan barneratu behar ditugu, ongizatearen gizaritari eusteko eta ongizatea eraikitzeko erantzukizunaren zati bat beren esku utziz.

Bitzita aktiboa eta autonomia luzatzea, hein handi batean, hiri diseinuaren lagunkoitasunaren, segurtasunaren eta etxeko giroaren egokitasunaren menpe dago. Egungo sektore estrategikoetako bat, osasunarekin batera, inguruneetako esku-hartzea da.

Pertsonetikiko lagunkoia den herri batek bere egiturak eta zerbitzuak berrantolatzen ditu, pertsona guztiei, beren ahalmenak edonolakoak izanda ere, kalitatea, segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko. Hala, pertsona horiek gizarte bizitzaren esparru guztietan parte hartzea sustatzen da. Garrantzitsua da nabarmentzea udalerrri lagunkoi batek adin guztietarako diseinatuta egon behar duela, eta ez adineko pertsonentzat hobekuntzak lortzera bakarrik bideratuta.

Horrela egituratutako udalerrien abantailak eta onurak

ABANTAILAK ETA ONURAK biztanle guztiek aprobetxatzen dituzte

- Oztoporik gabeko eraikinek eta kaleek dibertsitate funtzionala duten pertsonen (gazteak nahiz adinekoak) mugikortasuna eta independentzia hobetzen dute.
- Auzoetako ingurunea segurua izateak haurrak, gazteak eta adineko pertsonak kanpora konfiantzaz ateratzea dakar, edozein motatako gizarte edo aisialdi ekimenetan parte hartzeko.
- Familiek presio txikiagoa jasaten dute bertako adineko pertsonen komunitatearen babesa (publikoa nahiz pribatua) eta behar dituzten osasun zerbitzuak jasotzen dituztenean.
- Adineko pertsonen hiriko bizitzan parte hartzea onuragarria da komunitate osoarentzat.
- Adineko pertsonen esparru desberdinetan aktiboki parte hartzeak mesede egiten dio tokiko ekonomiari.





Proiektu honen helburua hiriko ekimenei eta espazio publikoari lotutako praktikek sortzen dituzten gizarte berrikuntzako prozesuen transferentziak sustatzea da. Herritarren gizarteko parte-hartzea, gizarte erantzunkidetasuna, belaunaldien arteko harremanak eta herritarren eta administrazioaren arteko komunikazioa sustatuz, pertsona guztien bizi kalitatea hobetu nahi da.

Sortutako gizarte eragina eta onurak ugaritu egingo dira herritarren, administrazioen, sektore pribatuen eta gizarte eragileen hedapen, onarpen eta inplikazio mailaren arabera.

Ekimen hau martxan dago 2012tik eta, aldi horretan, erabakigarria izan da Euskadiko 15 udalerritan tresnak, metodologiak eta praktika egokiak martxan jartzeko. Matia Institutuak, proiektua garatzearen ardura duen erakunde gisa, prozesua diseinatu eta herri horietan ezarri du, udalen, tokiko eragileen, elkarten mugimenduen eta herritarren laguntzarekin. Udalerri hauetan gauzatutako ekimen pilotua erabilgarria izan da Gida Praktikoa egiteko. Bertan, Euskadiko udalerrri guztiei eremu lagunkoi bat sortzeko eta inguruneak zahartzen ari diren pertsonentzat egokitzeko beharrezko tresnak eskaini ahal izan dizkiegu.

OMEren ESPARRUAN ETA ZAHARTZE AKTIBOAREN PARADIGMAREN BAITAN

Adineko pertsonetikiko lagunkoitasunaren mugimendua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bultzatuta sortu zen, 2005ean, Rio de Janeiroko Gerontologiaren XVIII. Mundu Biltzarrean, *Age-Friendly Cities* izenarekin. Ekimen honen ideologoak, Alexandre Kalache doktoreak (une hartan OMEko Ageing and Life Course programako zuzendaria), munduko biztanleria garaikidearen bi joera bereizgarri hartu zituen oinarri gisa programa hau martxan jartzeko: zahartze demografikoa eta urbanizazio prozesua. Gero eta gizarte zahartuagoetan eta gero eta ingurune urbanizatuagoetan, alegia hiri handietan, bizi gara. Ekimen honen asmoa bi joera horiei erantzuna ematen saiatzea da, adineko pertsonak eskaintzen duten potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin. Herritarren parte-hartze prozesu handi bat sustatu nahi da, adineko pertsonak protagonista izango dituen (ongizatearen sortzaile gisa).

Ekimen hau 2002an II. Zahartzaroaren Munduko Batzarrean, "Zahartze aktiboa, esparru politiko bat" dokumentuan, zehaztutako zahartze aktiboaren paradigmatik barne hartzen duen teorian oinarritzen da.


"Zahartze aktiboa osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak optimizatzekeo prozesua da, pertsonak zahartzen ari diren heinean beren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin"

(Active Ageing: A Policy Framework. Geneva, OME, 2002)



Adineko pertsonetik hiri lagunkoi batean, politikek, zerbitzuek, inguruneek eta egiturek pertsonen zahartze aktiboa babesten eta errazten dute. "Adineko pertsonak kontuan hartzen dituzten ingurune fisikoek independentziaren eta dependentziaren arteko aldea zehatz dezakete" (OME, 2002)

✓ Zahartze prozesua: adinaren eta gaitasun funtzionalaren arteko erlazioa



Iturria: Kalache y Kickbusch, 1997.

Gaitasun funtzionala haurtzaroan garatzen da, heldutasun goiztiarrean iristen da bere goreneko puntura eta zahartze prozesuarekin batera murrizten da. Murrizte tasa hori, hein handi batean, bizi estiloarekin eta pertsonaz kanpoko faktore sozial, ekonomiko eta ingurumenekoekin lotuta dago. Banakako erabakiek eta politika publikoek (esaterako, adinarekiko ingurune lagunkoi baten sustapena) eragina izan dezakete gainbehera horren abiaduran eta, kasu batzuetan, gaitasuna leheneratu ere egin dezakete.

"Ingurune lagunkoi batek bizitza independentea, zahartze aktiboa eta autonomia pertsonala sustatzen ditu, osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak hobetuz; betiere, pertsonen kalitatea hobetzeko helburuarekin"

(OME, 2007)

Zahartze aktiboa pertsonen zahartze prozesuaren kalitatea hobetzeko aukera bat da. Zailentzarik gabe, zahartze aktiboak eragin zuzena du norbanakoen gaitasun funtzionalari eusteko ahalmenean, horrek dakartzan abantaila guztiekin (maila pertsonalean, familiarikoan edo sozialean).



Horren dimentsio handiko paradigma honek ezerezte prozesu bat jasan du 2002an teorizatu zenetik, eta ikuspegi “positiboa” eta “aktibista” duten adineko pertsonen zuzendutako edozein jarduerari lotu zaio. Hori dela eta, adinekoek ikusle, kontsumitzaile edo erabiltzaile papera besterik ez duten programei lotzen zaie, jardueretan eta erabakiak hartzeko prozesuetan izan dezaketen inplikazioa eta parte-hartzea alde batera utzita.

Lagunkotasun programan, **adineko pertsonak ongizatea sortzeko prozesu baten protagonistak dira. Ongizate horrek gure eguneroko bizitzan eragina izango du**, espazio publikoak zentzuz berreskuratzea eskatuko du, herritarren harremanetan eta zaintzen transferentzian eragina izango du, etab. Azken finean, udalerriko eguneroko bizitza denentzat pixka bat onberagoa eta pozgarriagoa izan dadila ahalbidetzen duten gauza txiki horietan guztietan eragingo du.

Mundu mailan, programari hasiera eman zitzaion mundu osoko hirietan (besteak beste, New York, Rio de Janeiro, Tokio, Istanbul eta Nairobi) lagunkotasun maila neurtzeko 33 ekimen pilotu eginez. Ikerketa horretatik abiatuta, *Ciudades Globales Amigables con los Mayores: Una Guía* lana argitaratu zen 2007ko urriaren 1ean, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna zela eta. Gida hau, *Vancouverko Protokoloarekin* batera, mundu mailako beste hiri batzuetako diagnostikoaren lehen fasearen garapenerako oinarri metodologiko gisa erabili da.

Ordutik, **OMEk koordinatutako Hiri eta Komunitate Lagunkoien Mundu Sare bat** osatu da. Estatuan, IMSERSOK lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen erakunde horrekin, Adineko pertsonen lagunkoia diren hiri eta komunitateen sare iberoamerikarra sortzeko, Espainiako eta Latinoamerikako ekimen guztiak bateratzeko asmoz. 2011ko irailean Irlandan egindako Hiri eta Komunitate Lagunkoien I. Nazioarteko Biltzarrean, mundu guztiko 38 udalerririk ordezkatzeko zituzten alkateek eta tokiko agintariek Dublingo Adierazpena sinatu zuten. Adierazpen horrek ekimenarekin bat egiten duten udalerririk beren gain hartzen dituzten hainbat balio eta printzipio barne hartzen ditu. Urte honetako ekainean, beste 40 hiririk sinatu zuten konpromiso hori A.H.A. Conference biltzarrean. 2013ko irailean, Hiri eta Komunitate Lagunkoien II. Nazioarteko Biltzarra egin zen Quebecen, goiburua honekin: “Elkarrekin bizitzeko eta zahartuz gure komunitatean”.

Zalantzarik gabe, programa martxan jarri zenetik igaro diren 12 urte hauetan aurrerapen itzela egin dugu. OMEren babesarekin, erreferentziazko nazioarteko erakunde gisa, eta ekimen honekin bat egin duten udalerririk eta ingurune guztien (2014ko maiatzean, guztira 210), bai nazioartean bai nazio mailan, espero izandakoa baino askoz ere handiagoa izan da, eta ingurune guztietara egokitzen den programa aldakor eta malgu baten aldeko apustu sendoa egitea ekarri du, helburu bakarrarekin: gizarte berrikuntza eta erantzunkidetasun mugimendu bat sortzea, inguruneen lagunkotasuna hobetzeko, adineko pertsonak protagonista gisa hartuta.



LAN METODOLOGIA: 4 FASEKO ZIKLOA

Euskadiko udalerrietako ekimen honek izan duen garapenaren ezaugarri nagusia OMEk ezarritako 4 faseko lan metodologiaren jarraipena izan da, etengabe hobekuntzarako ziklo bati jarraituz.

✓ WHO Age-Friendly Network:

4 FASEko zikloa





1

LAGUNKOITASUN PLANA ETA DIAGNOSTIKOA (1.-2. urteak)

Fase honek proiektu honetan garatuko diren lau pauso edo etapa barne hartzen ditu:

- a. Adineko pertsonak lagunkoitasun zikloaren fase guztietan sartzeko mekanismoak ezartzea.
- b. Hiriaren lagunkoitasun mailari buruzko ebaluazio diagnostiko bat egitea.
- c. Hiru urteko eperako ekintza plan bat garatzea, diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta.
- d. Azken ebaluazioa egitea erraztuko duten funtsezko elementuak identifikatzea.

2

EKINTZEN EZARPENA (3.-5. urteak)

1. fasea amaitutakoan, eta beranduenez Sarera sartu eta bi urtera, hiriek beren ekintza plana aurkeztuko diote OMERI, azter eta onar dezan. OMEk onartu ondoren, hiriek hiru urteko epea izango dute ekintzak martxan jartzeko.

3

EBALUAZIOA (5. urtearen amaiera)

Lehenengo gauzatze aldiaren amaieran, hiriek egindako aurrerapenei buruzko txosten bat aurkeztuko diote OMERI, eta lehenengo fasean zehaztutako adierazleen bidez ebaluatuko da.

4

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Hasierako ekintza planarekiko aurrerapenak egin direla erakusten duten froga sendoak badaude, hiriek etengabeko hobekuntzarako fase bat igaroko dute. Bost urte arteko iraupena izango duten ekintza plan berri bat eta dagozkien adierazleak gauzatzeko gonbita jasoko dute. Plan berri honekiko aurrerapenak bigarren gauzatze aldi horren amaieran zehaztuko dira. Hiriek Sarean egoten jarrai dezakete, baldin eta gauzatze ziklo berriak burutzeko konpromisoa hartzen badute.



METODOLOGIA BEHETIK GORA

Lan metodologia, gainera, "Bottom-up" gerturatzean oinarritzen da (behetik gora). Metodologia horretan, herritarren parte-hartzea, oro har, eta adineko pertsonena, zehazki, izango dira proiektuaren oinarri nagusiak. Bertan parte hartzen duten eragile guztien parte hartze prozesu bat sortuz garatzen da:

Eragileak: Behetik gora (Bottom-up)





- **ADINEKO PERTSONEK ETA, ORO HAR, HERRITARREK** beren egungo, iraganeko eta etorkizuneko egoeraren analisisian parte hartzen dute, beren zahartze prozesuarekiko lagunkoia iruditzen zaiena azalduz, baita beren udalerriko eguneroko bizitzan jasaten dituzten arazoak eta horiek izan ditzaketen konponbideak adieraziz ere.
- **TOKIKO KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN, BORONDATEZKO LANGILEEN, ZERBITZU HORNITZAILEEN ETA MERKATARIEN PARTE-HARTZEA**, eta adineko pertsonen informazioa, erabilgarriak dira udalerrri batek lagunkoitzat hartua izateko dituen indar-guneen eta oztopoen irudi osoagoa emateko.
- **SEKTORE PUBLIKOAREN PARTE-HARTZEA** Ikerketaren arduradunek tokiko ebaluazioaren berri ematen diete arduradun politikoei, planifikatzaileei, adineko pertsoneri eta, oro har, herritar guztiei, esku hartzeko eta adinekoekiko lagunkoia izango den udalerrri bat lortzeko abiapuntu gisa.

Prozesu honek ikerketa/ekintza postulatuei jarraitzen die, zortzi esku-hartze esparrutan oinarrituta: Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak; Garraioa; Etxebizitza; Parte hartzea eta Gizarte Sarea; Errespetua eta Inklusioa; Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua; Komunikazioa eta Informazioa; eta Gizarte eta Osasun Zerbitzuak.



8 IKERKETA/EKINTZA EREMUAK



1
AIRE ZABALEKO LEKUAK
ETA ERAIKINAK



2
GARRAIOA



3
ETXEBIZITZA



4
PARTE-HARTZEA ETA
GIZARTE SAREA



5
HERRITARREN PARTE-
HARTZEA ETA ENPLEGUA



6
ERRESPETUA ETA
BARNE HARTZEA



7
KOMUNIKAZIOA
ETA INFORMAZIOA



8
GIZARTE ETA
OSASUN ZERBITZUAK



Lehen hiru gaiak (Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak; Garraioa; eta Etxebizitza) udalerriko ingurune fisikoko funtsezko ezaugarriak biltzen dituzte. Alderdi horiek eragin handia dute mugikortasun pertsonalean, segurtasunean, osasunaren sustapenean eta gizarte parte-hartzean.

Hurrengo hirurek (Parte-hartzea eta Gizarte Sarea; Errespetua eta Inklusioa; Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua) nagusiki pertsonen parte-hartzeari eta ongizate subjektiboari eragiten dioten hainbat elementu islatzen dituzte. Parte-hartzea eta Gizarte Sareak eremuak gizarte babeserako sare informalei buruzko informazioa biltzen du. Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua eremuan, adineko pertsonen lan ordaindua eta ez ordaindua gauzatze-ko eskaintzen zaizkien aukerei, erretiroaren esperientziari, herritarren parte hartze jarduerari eta aisialdiari buruzko informazioa biltzen da. Errespetua eta Inklusioa eremuan, adineko pertsonenganako pertzepzioak, jarrerak eta portaerak biltzen dira (adineko pertsonenak, beste pertsona batzuenak eta komunitatearenak oro har).

Azken bi eremuetan (Komunikazioa eta Informazioa; eta Gizarte eta Osasun Zerbitzuak), egungo baliabideen eta komunikazio nahiz informazio bitartekoen azterketa bat egiten da, baita adineko pertsonen egiten duten hiriko babeserako gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen erabilera eta ezagutzarena ere.

Hiriko bizitzaren zortzi alderdi horiek gainjarri egiten dira eta elkarri eragiten diote; esaterako, gizarte parte-hartzea gizarte inklusioarekin erlazionatuta dago eta lotura handia du, aldi berean, informaziorako sarbidearekin.

Modu horretan, zahartze prozesua erabaki politikoen muin gisa ezartzen da, gizarte zerbitzuetatik edo osasun eremutik haratago doazen esparruetan, ikuspegi integratzaile eta zeharkako batetik.



2



NOLA HAR DEZAKET PARTE?

- Aldez aurreko baldintza
- 1. PAUSOA: Diagnostikoa eta lagunkoitasun plana
 - 2. PAUSOA: Ekintzen ezarpena
 - 3. PAUSOA: Ebaluazioa
- 4. PAUSOA: Etengabeko hobekuntza



ALDEZ AURREKO BALDINTZA

EUSKADI LAGUNKOIAREKIN ETA *WHO GLOBAL NETWORK OF AGE-FRIENDLY CITIES AND COMMUNITIES* EKIMENAREKIN BAT EGITEA

Udalerriko lana proiektua udalbatzarrari aurkeztuz hasten da, onartu eta martxan jar dezan. Horrez gain, ekimena udalerriko eragile eta elkarte mugimendu guztiei aurkeztu behar zaie, adineko pertsonak protagonista dituztenei arreta berezia eskainiz. Modu horretan, gaiarekiko sentiberak diren eragile guztiek hasieratik prozesuan parte hartzea lortu nahi da, horren egokitasuna balioztatuz, martxan jartzeko prozesua eta proiektuaren garapena zuzenduz, eta herritarren jarrera aktiboa sustatuz.

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik programako eta OMEren Hiri eta Komunitate Lagunkoien Mundu Sareko kide izateko, parte-hartzaileek lau faseko zikloa eta aurrez azaldutako ebaluazio eta etengabeko hobekuntza prozesua betetzeko konpromisoa hartu behar dute. Horrez gain, nahitaezkoa da adineko pertsonak proiektuaren prozesu eta garapen osoan barneratzea.

Horretarako, Hiri Lagunkoien Sarearekin bat egiteko beharrezko dokumentuak egin behar dira, erakunde hauen argibideei jarraituz: OME, ekimenarekin erakunde sustatzaile gisa; IMSERSO, ekimenaren estatu mailako sustapenaren koordinatzaile gisa; eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Euskadi Lagunkoia sustatzaile gisa.

Hiri edo udalerrri bat Euskadi Lagunkoia udalerrri sarearen eta OMEren Sarearen parte izateko, eta dagokion aintzatespena lortzeko, hau egin behar du:

- 1** Alkateak eta udal administrazioak sinatutako gutun bat aurkeztea, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zuzendutakoa; bertan, aurrez deskribatutako 4 faseak gauzatzeko konpromisoa hartzen duela adierazi behar du (*ekimenarekin atxikitzeko gutunaren prototipoa 2. eranskinean*).
- 2** Lau faseko zikloari ekitea (1. Diagnostikoa-Plangintza, 2. Ezarpena, 3. Ebaluazioa, 4. Etengabeko Hobekuntza). Jarraian fase horietako bakoitza zehaztu da.

Modu honetan, Lagunkoia Udalerrien Sareko kide izateaz gain, Osasunaren Mundu Erakundeak koordinatutako Hiri eta Komunitate Lagunkoien Mundu Sarearen parte izateko prozesuari ekingo lioke.



Lagunkoia udalerrien Sareko kide izan nahi duten udalergi guztiek formulario hau bete behar dute: <http://euskadilagunkoia.net/eu/izan-lagunkoia/udalerriak>

Edo harremanetan jar daitezke helbide honen bidez info@euskadilagunkoia.net

Ekimenarekin bat egin ondoren, udalerriak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren onarpen gutun bat jasoko du, baita bere izena dakarren Lagunkoia logotipoa ere, ekimenaren baitan udalerrian sortzen diren dokumentuetan eta deialdietan erabilia izan dadin.

OMEren Sarean parte hartzeko kudeaketak Eusko Jaurlaritzak egingo ditu eta, eskaera onartu ondoren, udalerriko harremanetarako pertsonak OMEren gutun bat jasoko du, udalerriak mundu mailako ekimenarekin bat egin duela adieraziz.

Edozein zalantza edo aholkularitza behar izanez gero, jarri harremanetan Euskadi Lagunkoiarekin, helbide honen bidez: info@euskadilagunkoia.net

1. PAUSOA

DIAGNOSTIKOA ETA LAGUNKOITASUN PLANA

DIAGNOSTIKOA: METODOLOGIA ETA TRESNAK

OMEk ezarritako estandarren barnean edozein udalergi lagunkoitzat hartzeko gauzatu beharreko faseetako lehenengoa, adineko pertsonari, zehazki, eta herritar guztiei, oro har, eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten arazoei buruz galdetzean datza, beren udalerrien alderdi negatiboak eta positiboak identifikatzen saiatuz.

Proiektuaren premisetako bat adineko pertsonak etapa guztietan parte-hartzaile nagusi gisa, alegia protagonista gisa, sartzea da, beren egoera deskribatuz eta adieraziz edo aldaketarako iradokizunak eginez. Horrez gain, udalerrian identifikatutako arazoak konpontzeko ezarri behar liratekeen hobekuntza proiektuei buruzko erabakiak hartzen lagundu beharko dute.





OMEk protokolo metodologiko bat egin zuen 2007an (Vancouverko protokoloa izenekoa), Mundu Sarearekin bat egin zuten lehen udalerrien lagunkoitasuna neurtzeko lan egitura gisa. Protokolo horretatik abiatuta, hainbat tresna garatu dira mundu guztiko zenbait herri eta hiritan, lurralde horien lagunkoitasun mailaren ezagutzan aurrera egiteko asmoz. Protokolo hori oinarri gisa erabiliz, Matia Institutuak euskal biztanleen eta Euskadiko udalerrien ezaugarrietara egokitzeko lan egin du, eta hemen zehaztutako diagnostiko fase-rako metodologia espezifikoak eskaini du.

Udalerriaren diagnostikoa egiteko, informazioa biltzeko honako tresna hauek hartu behar dira kontuan:

A. Bigarren mailako iturrien azterketa.

Helburua:

Udalerrian eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea, bai alderdi soziodemografikoei dagokiena bai bertan parte hartzen duten eragileena edo garatzen ari diren programena.

B. Herritarren topaketak eta talde fokalak.

Helburua:

Herritarrekin beren udalerriko lagunkoitasun mailari buruz eztabaidatzea, ideiak biltzea eta proiektua garatzeko lantaldeak osatzeko herritar liderrak identifikatzea.

C. Lagunkoitasun galde-sortak.

Helburua:

Udalerrien lagunkoitasun maila ezagutzea, herritarren eskutik, adierazle kuantitatiboak erabiliz.



A. BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

Bigarren mailako iturriak aztertzeko, **udalerrian eskuragarri dagoen dokumentazioa** erabiliko da, hiriaren alderdi desberdinak biltzen dituena. Horretarako, beharrezkoa izango da **Udaleko eremu guztiek informazioa ematea**. Jarraian, hasierako diagnostikoa egiteko behar den informazio zerrendaren proposamen bat agertzen da:

1 Kokapena, tamaina eta topografia:

- a. Udalerrriaren deskribapen topografikoa
- b. Herriaren tamaina
- c. Biztanleriaren dentsitatea
- d. Udalerrriaren banaketa (auzoak, barrutiak, etab.)
- e. Kultura, kirol, aisialdi eta denbora libreko jarduerak gauzatzen diren lekuen zerrenda.

2 Udalerrian bizi diren pertsonak guztira:

- a. Biztanleria proiektzioak
- b. Piramidea eta egitura, adinaren eta sexuaren arabera

3 Adineko pertsonen ezaugarri sozialak, idiosinkratikoak eta ekonomikoak:

- a. Adinaren eta sexuaren araberako egitura
- b. Erosteko ahalmenaren maila (batez besteko errenta, pentsioak, etab.)
- c. Bizikidetzeta moduak (adib.: bakarrik bizi diren pertsonen %)
- d. Heziketa maila

4 Menpekotasun egoeran dauden biztanleak:

- a. Sexuaren eta adinaren araberako egitura

5 Baliabide publikoen eta pribatuen banaketa:

- a. Baliabide publikoen eta pribatuen kuantifikazioa, tipologiaren arabera (estaldura, plazak, erabiltzaileak)
- b. Garatzen ari diren programa publikoen zerrenda (gizarte zerbitzuak, kultura, hezkuntza, kirolak, etab.)



6

Elkarteen sarea eta irabazi asmorik gabeko erakundeak:

- a. Elkarteen kuantifikazioa eta zerrenda, eta horiek gauzatzen dituzten programak.
- b. GKEen kuantifikazioa eta zerrenda, eta horiek gauzatzen dituzten programak.

7

Planak eta horien aplikazio maila:

- a. Adineko pertsonak
- b. Irisgarritasuna
- c. Etxebizitza
- d. Beste batzuk

EUSTAT informazio iturri gisa

Informazio horrez gain, beste zenbait iturrik, hala nola, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat, <http://www.eustat.es/>), emandako datu estatistikoak erabil daitezke. Bertan udal informazioari buruzko atal bat aurki daiteke, hainbat ataletako datuak eskaintzen dituena; esaterako:

- Udal informazioa: udal datuen atal hau erabilgarria da egungo estatistika errealitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerriren bilakaera historikoa ezagutzeko. Gutxi gorabehera 200 datu estatistiko agertzen dira, gaikako 13 ataletan sailkatuta (horien hautaketa errazteko).
- Udalmap: udal informazio sistema bat da, helburu gisa Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako errealitatea xehetasunez azaltzea duena. Aldi berean, lurraldearen hazkuntzarekin eta garapenarekin zerikusia duten hainbat esparrutan erabakiak hartzera bideratutako politika publikoak diseinatzea eta ebaluatzea ahalbidetzen du, lurralde, ekonomia eta gizarte kohesio handiagoa eta ingurumenarekiko errespetua lortze aldera.



B. TALDE FOKALAK, HERRITARREN TOPAKETAK ETA SAKONEKO ELKARRIZKETAK

Udalerrriaren lagunkoitason maila neurtzeko eta aztertzeko, udalak eskaintako informazioarekin lan egiteaz gain, **ikerketa parte-hartzailerako prozesu** bati ekin behar zaio; bertan, **azterketa kualitatibo** bat (**herritarren topaketen eta/edo talde fokalen** bidez; **sakoneko elkarrizketekin** osa daitezke) eta azterketa kuantitatibo bat (inkestak bidez) egingo dira.

Nahitaezkoa da behar adina talde fokal eta/edo herritarren topaketa gauzatzea, adineko pertsonak eta horiekin lotutako hainbat gizarte eragilek udalerrian izandako esperientziak adieraz ditzaten.

Azterketa kualitatiboaren oinarritzko helburua «adineko pertsonetako lagunkoia» diren udalerriko alderdiak ezagutzeko, detektatzen diren oztopoak eta arazoak nabarmentzea eta hobetzeko aukerak proposatzea da.

Erabili beharreko ikerketa teknika eztabaida taldeena da, bi formatu desberdinetan:


- **Herritarren topaketak:** herritarrak beren iritzia ematera bultzatzeko pentsatuta daude, eta batez ere hiriko elkarten sarea ordezkatzeko duten hiriko parte hartze taldeekin egingo dira.
- **Talde fokalak:** parte-hartze organoetan ordezkari txikiak duten edo kontsulta espezifikoa eskatzen dituzten ezaugarriak dituztela hautematen den taldeen iritzia aztertzea dute helburu.

Aldi berean, egokitzat joz gero, **sakoneko elkarrizketak** egin ahal izango zaizkie ebaluazio eta hobekuntza prozesurako baliotsua izan daitekeen informazioa eman dezaketen teknikariek eta adineko pertsonak.

HERRITARREN TOPAKETAK ETA TALDE FOKALAK

Zer da?

Talde fokalen edo herritarren topaketen teknika norbanakoen sentimenduak, pentsaerak eta bizimodua jasotzeko espazio bat da, norberak emandako azalpenak sorraraziz, datu kualitatiboak eskuratzeko helburuarekin. Teknika horiek bereziki erabilgarriak dira





pertsonen ezagutzak eta esperientziak aztertzeke, elkarrekintza giro batean; giro horrek pertsonak zer pentsatzen duen, nola pentsatzen duen eta zergatik pentsatzen duen modu horretan aztertzea ahalbidetzen du. Taldean lan egiteak eztabaidatzeko aukera ematen du eta parte hartzaileak gai desberdinei buruz hitz egitera eta iritzia ematera bultzatzen ditu, lekukotasun benetan aberatsak sorraraziz.

Galde-sortak egokiagoak dira informazio kuantitatiboa eskuratzeko eta pertsona talde batek duen iritzia aztertzeke; aldi berean, taldeak iritzi horiek nola sortzen diren aztertzen du. Ikerketa teknika desberdinak erabiliz, elkarren osagarri diren informazioak eskuratzen dira, eta horrek udalerriko egoeraren diagnostiko zehatz bat lortzea ahalbidetzen du.

Udalerri bakoitzak, honelako parte-hartze ekitaldietan duen esperientziaren arabera, bere idiosinkrasiara hoberen egokitzen den teknika kualitatibo mota ezarriko du. Bi teknikak batera daitezke.



TALDE FOKALEN DISEINUA

Nola egiten dira?

Talde fokaletako parte-hartzaileek programaren **hartzaile diren biztanleen «ordezkariak»** izan behar dute; era berean, biztanleria horren iritzi desberdin guztiei buruzko informazioa jaso nahi dugu, talde guztiak batera hausnartzen ditugunean. Segmentazioa **biztanleria osatzen duten azpitalde guztiak identifikatzean eta azterketan zein sartu behar diren erabakitzean datza**, horien bizitzeko eta sentitzeko moduan eta gai interesgarriei buruz duten iritzian desberdintasunak ezar ditzaketen ezaugarriekin bat datozen irizpideak erabiliz.


Taldeak diseinatzeko premisek irizpide soziodemografikoei (sexua, adina, estatusa) eta kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren bestelako irizpideei jarraitzen diete. Helburua barneko talde homogeneoak diseinatzea da, komunikazioa zailtzen duten ezaugarriekin lotuta; eta, aldi berean, taldeko kide guztiek komunean dituzten gaiak sakonki azter daitezela ahalbidetzea. Ondo diseinatutako talde fokalek gutxi **gorabehera 1 eta 2 ordu artean irauten dute, eta parte-hartzaile kopurua 6 eta 12 artekoa izaten da.**

Talde fokalak osatzeko proposatutako **lantaldeak moderatzaile** eta laguntzaile bana izango ditu. Lehenengoa **eztabaida sortzeaz, parte-hartzaileak hitz egitera bultzatzeaz**, gehiegi hitz egiten duten pertsonen beste batzuei hitz egiten uzteko eskatzeaz eta taldeko kide guztiak parte hartzera animatzeaz arduratuko dira. Horrez gain, moderatzaileak **egin daitezkeen galdera berriak sorraraziko dituzten oharrak hartu** beharko ditu. Bestalde, **laguntzaileak** honako zeregin hauek izango ditu: **saioa grabatu, oharrak hartu**, taldeak eztabaidatzeko **giro egokia sortu** (antolamenduari dagokionez), **datuak egiaztatu eta ikertzaile/moderatzaileari datuak aztertzen eta/edo interpretatzen lagundu**.

Talde fokalak diseinatzean, faktore diskriminatzaile batzuk kontuan hartzea proposatzen da, talde desberdinen barneko ahalik eta heterogeneotasun inklusibo handiena lortzeko, adineko pertsonen udalerrian bizi duten errealitateari buruzko diskurtsoak eskuratzeko asmoz. Helburua adineko pertsonen hiriaren baitan duten irudia zehaztea da; horretarako, interesgarriak dira, batetik, gizarte testuinguru desberdinetatik (nahi izanez gero, testuinguru soziohistorikoetatik) eta egoera ekonomiko eta osasunekoetatik sorrarazitako autopertzeptzioak, eta, bestetik, adineko pertsonekin mota desberdinetako elkarrekintzak dituzten eragile desberdinek dituzten pertsona horien irudiak.

WHO Global Age-Friendly Cities programa osatzen zuten hasierako 33 hiriek erabilitako **Vancouverko Protokoloak 6 talde fokal egitea gomendatzen zuen**, honela banatuta:

- Adineko pertsonen 4 talde: adinaren eta maila sozioekonomikoaren arabera.
- Adineko pertsonen zaintzaile informalen 1 talde: zaintzen duten pertsonaren menpekotasun mailaren arabera.
- Zerbitzu hornitzaileen 1 talde: udal zerbitzuetako profesionalak (hirigintza, kultura, gizarte zerbitzuak, garraioa, segurtasuna, etab.), merkataria eta enpresariak (supermerkatua, bankua, jatetxea, farmazia, etab.), eta borondatezko erakundeak (Gurutze Gorria, Nagusilan, Alzheimer Gaixoen Elkarteak, Caritas, etab.) osatutakoa.





IMSERSOK sustatutako Adineko Pertsonetik Hiri Lagunkoien proiektua garatzeko tresnak egiteko lantaldeak eginiko Vancouverko Protokoloaren egokitzapenean, talde kopuru hauek gomendatzen dira, udalerritarako biztanleria osoaren arabera:

Biztanle kop.	Gomendatutako talde kop.	Pertsona kop.
>1.000 bizt.	Adinekoen 2 talde (1: 60-75, 1: 75 eta gehiago) Zaintzaileen eta hornitzaileen 1 talde Alderatzeko 1 talde ireki: 60+	24
1.001-5.000	Adinekoen 4 talde (1: 60-70, 2: 70-80, 1: 80 eta gehiago) Zaintzaileen eta hornitzaileen 1 talde	40
5.000-20.000	Adinekoen 8 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 2 talde	80
20.000-50.000	Adinekoen 12 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 3 talde	120
50.000-100.000	Adinekoen 20 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 5 talde	200
100.000-200.000	Adinekoen 28 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 7 talde	280
200.000-500.000	Adinekoen 36 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 9 talde	360
500.000 eta gehiago	Adinekoen 44 talde (adinaren eta estatusaren arabera) Zaintzaileen eta hornitzaileen 11 talde	440

HERRITARREN TOPAKETAK

Herritarren topaketen kasuan, laneko metodologia antzekoa da; **herritar guztiei irekitako** foroak dira eta herritar kopuru handiagoak barne hartzen dituzte, udalerririk pertsona kopuru handi bat biltzeko dituen baliabideen, espazioen eta profesionalen arabera. Topaketa horietan modu orokorrean lan egin daiteke, beheago zehaztutako gidoiari jarraituz, baldin eta bertaratutako pertsona kopurua ez bada 15-20 baino gehiagokoa; edo gaika edo pertsonen profilen arabera egituratutako mahaietan, 15-20 pertsona baino gehiago bertaratzen direnean. Metodoa udalerririk erabilgarri dituen baliabideen arabera erabakiko da, baina ez da 50 parte-hartzaile baino gehiagoko topaketarik egitea gomendatzen.

Hauek izango dira, gutxienez, topaketa koordinatzeko **beharrezko teknikariak**:

- Parte-hartzaileak mahaietan banatuta lan eginez gero, beharrezkoa da **mahai bakoitza koordinatzeko pertsona bat** egotea gutxienez.
- Pertsona talde handi bakar batekin lan eginez gero, beharrezkoa da **topaketa koordinatuko duten bi pertsona** egotea gutxienez.



Topaketetako parte-hartzaileak mahaietan banatzea erabakitzen bada, bi tipologia eredu hauek daude:

- **Gaika egituratutako topaketak** parte-hartzaileak eztabaidako gaikako eremuetan duten **interesaren arabera** banatuta egiten dira; alegia, lehen aipatutako 8 lan eremuen arabera. Mahai bakoitzak eremu bat edo gehiago landuko ditu, eta parte hartzaileek erabakiko dute zein mahaietan egon.
- **Profilen arabera egituratutako topaketak biztanleak hainbat irizpideren arabera sailkatuz garatzen dira:** adina, auzoak, zaintzaileak diren, zerbitzu hornitzaileak diren, udalerriko elkarten esparruan parte hartzen duten, etab. Topaketan dauden biztanleak zein kategoriatan sailkatu nahi diren aukeratu behar da, eta parte hartzaile bakoitzari bere burua ondoen irudikatzen duen rola hautatzen utzi behar zaio. Kasu honetan, eremu guztietan ezarritako taldeetan lan egingo da, jarraian agertzen den gidoiari jarraituz.

Egin beharreko topaketa kopurua parte-hartzaileen kopuruaren eta profilen araberakoa izango da. Beharrezkotzat jotzen da **gutxienez 2 topaketa egitea**, ahalik eta pertsona gehien bilduz. Topaketa horiek **gutxi gorabehera 2 ordu iraungo dute**.

TALDEEN ETA TOPAKETEN GIDOIA

Galderek eta ikerketaren diseinuak zuzentzen dute talde fokalak eta topaketak osatzeko modua. Gidoia bilkuran landu beharreko gaien edo eremuen zerrenda bat da, azterlanaren helburu guztiei erantzuteko beharrezko informazioa biltzen dela bermatzeko balio duena. Hori egiteko, lehenengo gaikako eremu posibleen zerrenda luze bat egin behar da (azterlanaren helburua eta berrikuspen bibliografikoa kontuan hartuta) eta ondoren proposatuko diren gai batzuk zehaztu behar dira.



Gidoiak ezaugarri hauek izan behar ditu beti:

- Ekimenaren **aurkezpen** orokorra.
- **Eskerrak**, parte hartu duten pertsona guztiei zuzenduta.
- Topaketaren edo taldearen **helburuaren azalpena**.
- **Anonimatua:** parte-hartzaileei informazioaren tratamenduan anonimatua zainduko dela bermatu behar zaie. Emaidza gisa egiten den dokumentuan ez zaio erreferentziarik egingo pertsonari, bakoitzak kode bat izango baitu.
- **Baimena:** hitzez jaso behar da talde edo topaketa honetan parte hartzeko baimena ematen duela.



Proposatutako gidoia lehen aipatutako **8 esku-hartze/ekintza eremuetan** eta Vancouverko Protokoloan oinarritzen da; horrek ez du esan nahi udalerrian sor daitezkeen beste gai sozial batzuk landu ezin direnik.




TALDE FOKALEN ETA HERRITARREN TOPAKETEN GIDOI OROKORRA 8 IKERKETA/EKINTZA EREMU



EREMUAK	GAIAK
<p>Nolakoa da bizimodua zure udalerrian?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdi positiboak • Arazoak • Erraztasunak/Zailtasunak • Aurkako giroa/Giro atsegina
<p> 1) AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Nolakoa da etxetik irtetea, paseatzeko, airea hartzeko, enkarguak egiteko edo bisitak egiteko?</p> <p>Nolako esperientzia izan duzu eraikinetan (esaterako, bulego publikoetan edo dendetan)?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lurrazala-azalera • Eskaileren eta espaloien diseinua eta mantentze-lanak • Bidegurutzeak eta oinezkoen pasabideak • Zarata, trafikoa, auto ilarak • Berdeguneak, paseatzeko eremuak • Euriaren, eguzkiaren edo haizearen aurkako babesak • Eserlekuak, atsedenlekuak • Segurtasun sentazioa • Eraikinetan: eskailerak, igogailuak, korridoreak, komunak, atsedenlekuak... • Etab.
<p> 2) GARRAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Deskriba ezazu garraio publikoaren erabiltzaile gisa izan duzun esperientzia</p> <p>Zer moduz gidatzen da zure udalerrian?</p>	<p>Garraio publikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabilgarritasuna eta irisgarritasuna • Arrazoizko prezioa • Informazioa • Ibilbide zabalak, norberak nahi duen lekura iristeko • Desgaitasunak dituzten pertsonentzat egokitutako garraioa <p>Gidariantzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Seinale irakurterrazak • Kaleetako zenbaki irakurterrazak • Gertu aparkatzeko behar adina gunek • Minusbaliatuentzat erreserbatutako aparkalekua • Etab.





EREMUAK	GAIK
<p> 3) ETXEBIZITZA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Hitz egin bizi zaren etxeari buruz.</p> <p>Zure beharrak aldatuz gero, etxebizitza hautatzeko zer aukera dituzu?</p>	<p>Etxebizitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gastua eta erosotasuna • Zerbitzuen gertutasuna • Egokitzeko aukerak • Mantentze-lanak edo konponketak • Partekatutako espazioak <p>Mugikortasuna eta independentzia etxean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erraz mugitzea • Gauzak erraz hartzea eta gordetzea • Etxeko lanak eta zereginak gauzatzea • Etab.
<p> 4) PARTE-HARTZEA ETA GIZARTE SAREA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Nola sozializa daiteke erraztasunez zure udalerrian?</p> <p>Hitz egin beste jarduera batzuetan duzun parte hartzeaz: hezkuntza, kultura, aisialdia, erlijioa, etab.</p>	<p>Familia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harremana eta gertutasuna • Jasotako eta emandako laguntzak • Biloben zaintza <p>Auzokoak eta lagunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harremana • Jasotako eta emandako babesa <p>Dendariak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harremana • Jasotako eta emandako babesa <p>Gizarte jarduerak eta aisialdikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arrazoizko prezioa • Irisgarriak • Ohikoak eta ordutegi malgudunak • Aukeratzeko eskaintza • Informazioa • Etab.





EREMUAK	GAIAK
<p> 5) HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA ENPLEGUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Lanean edo lan bila ari bazara, kontatu lan ordainduaren eremuan duzun esperientzia.</p> <p>Hitz egin jarduera publikoetan duzun parte hartzeaz (komunitateko elkarteak edo udal kontseiluak).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aukerei buruzko informazio eskuragarria • Aukeren irisgarritasuna • Aukeren aniztasuna • Laneko aukerak • Trebakuntza • Aurretiko erretiroa • Elkartegintza • Etab. <ul style="list-style-type: none"> • Ezagutza • Parte-hartzea • Interesa
<p> 6) ERRESPETUA ETA INKLUSIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Gizarteak nola adierazten dizu errespetua, edo errespetu falta, adineko pertsona izateagatik?</p> <p>Zure komunitatean programatzen diren ekitaldi edo jardueretan sartuta edo horietatik kanpo zaudela sentitzen duzu? Zer zentzutan?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetua • Tratua: edukazioa, adeitasuna • Entzutea • Kontsulta • Adineko pertsonen ekarpenen aintzatespen publikoa • Belaunaldien arteko jarduerak • Adinekoen irudiaren pertzepzioa • Bazterketa ekonomikoa • Etab.



EREMUAK	GAIAK
<p> 7) KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Nolakoa da zure esperientzia zerbitzuei eta ekitaldiei buruzko informazioa eskuratzean? Informazio hau telefono, irrati, telebista edo prentsa bidez, edo aurrez aurre, eskura daiteke.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gehien erabilitako bitartekoak <p>Informazioaren ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nahikoa/Gehiegizkoa • Fidagarria • Irisgarria • Behar bezalakoa • Egokia • Ulertzeko erraza • Zailtasunak • IKTen erabilera • Aholkularitza • Etab.
<p> 8) GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia positiboak • Esperientzia negatiboak • Hobetzeko proposamenak <p>Nolakoa da gizarte zerbitzuekin eta osasun sistemarekin izan duzun esperientzia?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutza eta erabilera • Gogobetetzea • Tratua • Erabilgarri dauden zerbitzu motak • Irisgarritasuna • Arrazoizko prezioa • Zerbitzuek banakako beharrei emandako erantzuna • Prebentzio zerbitzuak • Izapideak • Egoitza, etxez etxeko laguntza zerbitzua, laguntza teknikoak • Informazioa, aholkularitza • Etab.

Talde fokalen, topaketen eta elkarrizketen informazioa **audio batean grabatuko da**, ondoren aztertzeko (bertaratzen diren pertsoneri horren berri emango zaie).

Saioaren amaieran bertaratu diren pertsoneri buruzko informazioa bildu da, bertaratu direnen **orriaren bitartez**, eta proiektuaren garapenean parte hartzen jarraitzeko eskatu zaie. Informazio hau pilatzea garrantzitsua da ekimenari jarraipena emateko eta pertsoneri protagonismoa emateko prozesu osoan zehar.

Orri hau bete duten pertsona guztiek alta eman dezakete web orrialdeko (www.euskadilagunkoia.net) Lagunsarea sarean, horren onurez gozatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako ekimeneri buruzko informazioa barne hartzen duen hileroko Newsletter-a jasotzeko.

www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak webguneko lanerako materialean, topaketetan eta taldeetan informazioa biltzeko erabili ahal izango den dokumentua jaso da. (Topaketetan eta taldeen gidioa)

TALDEEN ETA TOPAKETEN AZTERKETA

Informazioa erregistratu ondoren, azterketa eredu desberdinen artean aukera daiteke. Metodo bat edo bestea lehenestea azterlanaren helburuen eta ikertzailearen paradigma teorikoaren arabera izango da nagusiki. Gure azterlanaren kasuan, azterketa testuaren **ikerketa prozesu sistematikoa bat bezala landuko dugu, gaiak identifikatuz eta sailkatuz, eta diskurtsoaren edukia kodifikatuz. Transkripzioan** oinarritutako azterketa da zorroztasun eta denbora gehien eskatzen duen datuen analisirako metodoa. **Testuaren aurretiazko** irakurketa batek ikuspegi orokor bat lortzen lagunduko digu. Irakurketa horretan datuetatik sortuko diren eta azterketaren ondorengo faseetarako erabilgarriak izan daitezkeen **ideia guztiak jasoko ditugu. Parte-hartzaile bakoitzarentzat kode bat erabiltzeak pertsona bakoitzaren diskurtsoaren segimendua egitea ahalbidetuko du, bere konfidentzialtasuna bermatuz.** Modu horretan, kategorien hasierako gidoi bat osatuko da, azterlanaren helburuetatik eta kontsultatutako bibliografiatik abiatuta. Ondoren, transkripzioen irakurketatik ateratako kategoriak gehituz osatuko dugu. Azterlan kualitatiboetan, datuen azterketa ez da erabat zehaztuta egongo aldez aurretik, "aurrez pentsatuta, koreografiatuta edo zirriborratuta" baizik. **Azterketa** lehen aipatutako **8 ikerketa/ekintza eremuei jarraituz** egituratuko da nagusiki.

Azken txostenak gai bakoitzari buruzko informazio guztiaren laburpena barne hartuko du, **hitzez-hitzeko aipamena hautaketa** batekin. Gure kasuan, informazio horrek gaikako kategorien arabera edukien azterketa bat barne hartzen du.

Talde fokaletako eta topaketetako informazioaren azterketaren faseak

1. Grabazioen transkripzio literala
2. Transkripzioen aldez aurreko irakurketa
3. Kategorien gidioa egitea
 - a. Azterketaren kategoriaren izena
 - b. Katetoria horretan sartuko den informazioaren deskribapena
 - c. Kategoriaren laburdura (testuan sartuko den kodea)
4. Transkripzioen kodifikazioa
 - a. Testua zatitan banatzea (oinarrizko azterketa unitateak)
 - b. Zati bakoitzari gaikako kategoriak esleitzea
5. Transkripzioen edukiaren azterketa
 - a. Talde fokal bakoitzaren edukiaren azterketa
 - b. Kategorien edukiaren azterketa
6. Azken txostena egitea



SAKONEKO ELKARRIZKETAK

Beharrezkotzat joz gero, sakoneko elkarrizketaren teknika erabil daiteke udalerriko diagnostikoari buruzko informazio gehiago lortzeko.

Zer da?

Sakoneko elkarrizketa informazioa lortzeko teknika bat da; horretarako, **elkarrizketa profesional bat egiten da pertsona batekin edo gehiagorekin**, ikerketarako azterketa analitiko bat egiteko edo gizarte diagnostikoak edo tratamenduak egiten laguntzeko.

Nola egiten dira?

Kasu honetan, egin beharreko elkarrizketak **azterlanaren gaian adituak eta liderrak diren pertsonekin elkarrizketa sakonak** egitean datza. Helburua beren esperientziei eta udalerriri dagokionez dituzten itxaropenei buruzko informazioa eskuratzea da, funtsezko pertsona batzuen ikuspegia lortzeko eta ikuspegi hori osotasunean eta sakon ezagutzeko asmoz.

Gutxi gorabehera **ordubeteko** elkarrizketa erdiegituratuak gauzatzean datza. Horietan azterlanerako interesgarriak diren gai nagusiak lantzen dira; elkarrizketatzaileak gidoi bat izaten du eta horren bitartez zenbait gai ateratzen ditu, elkarrizketatuak bere iritzia eman dezan.

ELKARRIZKETEN DISEINUA

Elkarrizketatuen **hautaketa** egiteko, **komunitatean duten rola eta landu beharreko gaiari buruzko ezagutzak** erabiliko dira irizpide gisa.

Elkarrizketa pertsona aditu batek egingo du, elkarrizketatuarentzako **leku lasai eta eroso batean**. Elkarrizketa **grabatu** egin behar da, taldeak eta topaketak bezalaxe, ondoren aztertzeko.

ELKARRIZKETEN GIDOIA

Helburuen arabera, elkarrizketatzaileak aztertzeko interesgarriak iruditzen zaizkion galderak edo gaiak edukiko ditu idatzita gidoi batean. Sarreraren ondoren, gaiak, galderak eta gaikako eremuak aurkeztuko dira. Adierazi behar da gidioa elkarrizketan ez galtzeko erabiliko den erreferentziatzko mapa bat besterik ez dela. Beraz, onartu eta errespetatu egingo da elkarrizketatuak gidioan ezarri gabeko norabide bat hartzea, bertan zehaztu gabeko gaiei buruz hitz eginez edo galderen ordena aldatuz. Hori bai, galderen erritmoa eta ordena aldatuta ere, hasiera batean zehaztutako gai garrantzitsu guztiei buruz hitz egiteko ahalegina egingo da.





Elkarrizketatu bakoitzarentzat bere profilerako egokitutako elkarrizketarako gidoi espezifikoa bat garatuko da. Gidoi horrek pertsona bakoitzari egokitu beharreko lagunkotasunari buruzko gidoi orokor bat barne hartuko du. Gidoi hau aurrez aipatutako 8 ikerketa eremuen arabera egituratu da.

GALDEREN FORMULARIOA

0. Sarrera

Proiektuaren aurkezpena

1. Galdera orokorra

Nola bizi da adineko pertsona bat zure udalerrian?

2. Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak

Zer erraztasun ditu adineko pertsona batek zure udalerrian mugitzeko?

Eta eraikinetan (esaterako, zentro publikoetan) sartzeko?

3. Garraioa

Zer esperientzia izan duzu garraio publikoa erabiltzean?

Gidariantzat, nolakoa da hirian gidatzea? (Jar zaitetz adineko pertsona baten lekuan)

4. Etxebizitza

Nolakoa da bizi zaren etxea?

Zure beharrak aldatuz gero, zer aukera eskaintzen dizkizu zure udalerriak etxebizitza egokitzeko edo aldatzeko?

5. Errespetua eta Inklusioa

Zure komunitateak nola erakusten du adineko pertsonetarako errespetua?

Zure komunitateak nola barneratzen ditu, edo ez ditu barneratzen, adineko pertsonak jarduera eta ekitaldietan?

6. Parte-hartzea eta Gizarte Sarea

Zure komunitatean adineko pertsona batek zer erraztasun ditu harremanak izateko?

Zer motatako gizarte eta aisialdi jarduerak eskaintzen dizkie zure udalerriak adineko pertsonari?

7. Komunikazioa eta Informazioa

Nola ematen da zure udalerriak eskaintzen dituen ekitaldien, zerbitzuen edo jardueren berri?

8. Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua

Zer esperientzia izan duzu borondatezko laneko erakundeetan?

Lanean jarraitzen duen 60 urte baino gehiagoko pertsonarik ezagutzen duzu?

Elkarteetan parte hartzen duen adineko pertsonarik ezagutzen duzu?

9. Gizarte eta Osasun Zerbitzuak

Nolako esperientzia izan duzu adineko pertsonari laguntzeko zerbitzuekin?



ELKARRIZKETEN AZTERKETA

Elkarrizketen azterketa gaika egingo da. Hasierako eskema izaten da ikerketa txostenaren indizearen oinarria eta azterketaren gidioia.

Egin beharreko lana talde fokaletarako proposatutakoaren antzekoa da: transkripzioak irakurriko dira eta elkarrizketatu bakoitzari kode bat jarriko zaio, elkarrizketa bakoitzeko emaitzak gaien eta azpigaien arabera kodifikatuko dira, eta gai bakoitzeko zati guztiak atal bakar batean pilatuko dira, elkarrizketa bakoitzaren erreferentzia galdu gabe.

C. LAGUNKOITASUN GALDE-SORTA

Udalerriaren lagunkoitasun mailari buruzko ezagutza handiagoa izateko eta diagnostikoko parte-hartze prozesuan **adin guztietako herritar gehiagoren iritzia** kontuan hartzeko, lagunkoitasun galde-sorta bat egin daiteke.

FITXA TEKNIKOA

Helburua: udalerriaren lagunkoitasun maila ezagutzea, **adierazle kuantitatiboen** bidez.


Erabili beharreko teknika: Encuesta autocumplimentada.

Unibertsoa: 16 urte eta gehiagoko pertsonak.

Informazio bilketa: udala arduratuko da galde-sortak zabaltzeaz eta jasotzeaz, egokien iruditzen zaizkion bideak erabiliz. Zabaltzeko bideen adibideak:

- Gizarte zentroetan, kultura zentroetan, liburutegian, kiroldegian, etab. uztea.
- Elkartetara bidaltzea, bazkideek bete dezaten.
- Etxeetako buzoietan botatzea.
- Web orrialdearen bidezko online galde-sorta:
<http://euskadilagunkoia.net/eu/lagunkoitasun-galdera-sorta>

Web orrialdearen bidezko online galde-sorta erabiltzen duten udalerriek datuen fitxategia Excel formatuan eska dezakete, beren udalerriko online galde-sorta bete duten pertsonen emaitzak eskuratzeko. Horretarako, helbide elektroniko honetara idatzi beharko dute: info@euskadilagunkoia.net





LAGUNKOITASUN GALDE-SORTA

Jarraian galde-sortaren proposamen bat ikus daiteke. Horren azken orrialdean udalaren harremanetarako informazioa sartu behar da; horrez gain, inkestatutako pertsonari buruzko informazioa jasoko da, baldin eta proiektuan parte hartu edo horri buruzko informazioa jaso nahi badu. Modu honetan, ahalik eta herritar gehien sartu nahi dira proiektuaren garapenean. Informazio honek beste orri batean egon beharko du, galde-sortatik bereizita; izan ere, ezin dira pertsona bakoitza eta eman dituen emaitzak lotu, galde sorta betetzeko beharrezkoa den anonimatuari eusteko.

Ekimena ezagutu edo bertan parte hartu nahi duten pertsona guztiek web orrialdeko (www.euskadilagunkoia.net) Lagunsarea sarean alta eman dezakete, horren abantailez gozatzeko eta Euskadi osoan gauzatzen diren ekimenei buruzko informazioa biltzen duen hileroko Newsletter-a jasotzeko.

Udalerriek galde-sorta beren beharretara egokitu ahal izateko, Word formatuko dokumentu bat dago (lagunkoitasun galde-sorta) www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak webguneko lanerako materialean. Udalerriak galde sortako galderak aldatzea erabakitzen badu, online galde sortaren bidezko informazio bilketak ez du balioko.



LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDE-SORTA CUESTIONARIO AMIGABILIDAD

Kontatu zure esperientzia!

Partekatu gurekin zure herriaren lagunkoitasunaren inguruan dituzun iritziak eta esperientziak, galde-sorta honen bidez.

Comparte tus opiniones y experiencias sobre el grado de amigabilidad de tu municipio rellenando este cuestionario.

Sexua / Sexo	
Adina / Edad	

Jarri X bat galdera bakoitzean nahi duzun laukian, irizpide hauen arabera:

Marque la casilla deseada con una X en referencia a los siguientes valores:

1. Ezer / Nada 2. Gutxi / Poco 3. Nahiko / Regular 4. Asko / Bastante 5. Erabat / Mucho

	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Nolakoa da herria? ¿Cómo es el Municipio?					
Garbia / Limpio	1	2	3	4	5
Zaratatsua / Ruidoso	1	2	3	4	5
Atsegina / Agradable	1	2	3	4	5
Merkea / Barato	1	2	3	4	5
Herriko parkeak eta berdeguneak Parques y zonas al aire libre del municipio					
Behar adina daude / Hay suficientes	1	2	3	4	5
Ondo zainduta daude Están bien cuidados	1	2	3	4	5
Egoki kokatuta daude Están bien situados	1	2	3	4	5
Ongi hornituta daude (komun publikoez, jarlekuez, paperontziez...) / Están bien equipados (baños públicos, bancos, papeleras, etc.)	1	2	3	4	5



	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Sarritan joaten zara Asiste con frecuencia	1	2	3	4	5
Herriko espaloiak eta kaleak Las aceras y las calles del municipio					
Ondo zainduta daude Están bien cuidadas	1	2	3	4	5
Irisgarriak dira (mailarik gabeak, beheratuak, behar adinako lekuarekin) / Son accesibles (sin desniveles, están rebajadas, con espacio suficiente)	1	2	3	4	5
Eserlekuak edo atseden-lekuak dituzte / Hay bancos o lugares donde poder descansar	1	2	3	4	5
Herriko Zirkulazioa eta seinaleak El tráfico y las señales del municipio					
Seinaleak errespetatu egiten dira Se respetan señales de tráfico	1	2	3	4	5
Oinezkoek gurutzatzeko behar adina irauten dute semaforoek Los semáforos duran tiempo suficiente para el cruce del peatón	1	2	3	4	5
Ibilgailuak abiadura egokian ibiltzen dira / Los vehículos van a una velocidad adecuada	1	2	3	4	5
Herritarren segurtasuna Seguridad ciudadana					
Behar adina argi dago Suficientemente iluminado	1	2	3	4	5
Zaintza egokia dago Está convenientemente vigilado	1	2	3	4	5
Lapurreta-arriskua dago Hay peligro de robos	1	2	3	4	5
Leku batzuetan ez zara seguru sentitzen / Existen zonas donde se sienta inseguro	1	2	3	4	5
Herriko garraio publikoa Transporte público del municipio					
Autobusa: behar adina geraleku daude / Bus: Existen suficientes paradas	1	2	3	4	5



	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Autobusa: ibilbideak eta maiztasuna onargarriak dira / Bus: Las rutas y la frecuencia son aceptables	1	2	3	4	5
Autobusa: prezioa arrazoizkoa da / Bus: El precio es asequible	1	2	3	4	5
Autobusa: garraio segurua eta irigarria da / Bus: El transporte es seguro y accesible	1	2	3	4	5
Trena: Sarritan erabitzen duzu / Tren: Lo utilizas con frecuencia	1	2	3	4	5
Trena: Tren geltokia ongi kokatuta dago / Tren: Esta bien ubicada la estación del tren	1	2	3	4	5
Trena: Prezioa arrazoizkoa da / Tren: El precio es asequible	1	2	3	4	5
Herriko etxebizitza Vivienda del municipio					
Etxebizitza eskuragarriak daude prezioari dagokionez / Dispone su municipio de viviendas asequibles en cuanto a precio	1	2	3	4	5
Ezagutzen dituzu etxebizitza berritu, kontserbatu edo egokitzeko dauden laguntza finantzarioak / Conoce la existencia ayudas financieras para las reforma, el mantenimiento o la adaptación de su vivienda	1	2	3	4	5
Zure etxebizitza egokituta dago mendekotasun-egoerarako / Su vivienda está adaptada a posibles situaciones de dependencia	1	2	3	4	5
Herriko sareak eta gizarte-laguntza Tejido y apoyo social del municipio					
Zure familian lagundu egiten diozue elkarri / Se intercambia ayuda entre los miembros de su familia	1	2	3	4	5
Senitartekoen arteko harremanak maizkoak dira / El contacto familiar es frecuente	1	2	3	4	5
Zure senitartekoen etxea zuretik gertu dago / El hogar de sus familiares se sitúa cerca del suyo	1	2	3	4	5
Auzotarrak ezagutzen dituzu / Conoce a sus vecinos	1	2	3	4	5




	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Auzotarrek laguntzen diozue elkarki / Existe apoyo entre vecinos (intercambio de ayuda)	1	2	3	4	5
Merkatariak (establezimenduetako ugazabak eta langileak) ezagutzen dituzu / Conoce a los comerciantes (dueños y empleados de establecimientos)	1	2	3	4	5
Egoera jakin batzuetan lagundu egiten dizute / Le ayudan en situaciones concretas	1	2	3	4	5
Herriko borondatezko lana eta elkartegintza Voluntariado y asociacionismo del municipio					
Borondatezko laneko jardueretan parte hartzen duzu / Participa en actividades de voluntariado	1	2	3	4	5
Elkarteetan parte hartzen duzu Participa en asociaciones	1	2	3	4	5
Zure herriaren bizitzan gehiago parte hartu nahi zenuke Le gustaría participar más en la vida ciudadana de su municipio	1	2	3	4	5
Herriko aisialdia Tiempo libre del municipio					
Aisialdirako jarduera mota ugari daude / Hay una amplia variedad de actividades de tiempo libre	1	2	3	4	5
Aisia-jarduerak eskuragarriak dira Las actividades de ocio son asequibles	1	2	3	4	5
Aire zabaleko jarduerak egiteko lekuak (kultura-zentroak, antzokiak, kirol-zentroak...) ongi kokatuta daude / Los lugares donde se realizan actividades de tiempo libre (centros culturales, teatros, centros deportivos,...) se encuentran bien ubicados	1	2	3	4	5
Herriko biztanleak errespetua eta gizarteratzea Respeto e inclusión social en el municipio					
Zure ustez zure herrian errespetatu egiten dira adinekoak Cree que las personas mayores son respetadas en su municipio	1	2	3	4	5



	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Nahikoa harreman dago belaunaldien artean / Existe contacto suficiente entre personas de diferentes edades (mayores, niños, jóvenes)	1	2	3	4	5
Herriko komunikazioa eta informazioa Comunicación e Información del municipio					
Zure ustez egoki informatuta zaude zure udalerrian gertatzen denaz Se considera bien informado/a sobre lo que ocurre en su municipio	1	2	3	4	5
Interneten doan sartzeko leku publikoak ezagutzen dituzu Conoce centros públicos donde poder acceder a internet de forma gratuita	1	2	3	4	5
Herriko gizarte- eta osasun-zerbitzuak Servicios sociales y sanitarios del municipio					
Etkez etxeko laguntzaren zerbitzua ezagutzen duzu / Conoce el servicio de ayuda a domicilio	1	2	3	4	5
Telelaguntza-zerbitzua ezagutzen duzu / Conoce el servicio de teleasistencia	1	2	3	4	5
Eguneko zentroaren zerbitzua ezagutzen duzu / Conoce el servicio de centro de día	1	2	3	4	5
Adinekoentzako egoitzen funtzionamendua ezagutzen duzu Conoce el funcionamiento de las residencias para personas mayores	1	2	3	4	5
Osasun-zentroa egoki kokatuta dago eta gertu / Está el centro de salud ubicado de forma adecuada y cercana	1	2	3	4	5

OHARRAK / OBSERVACIONES:





Orain balora ezazu zure ASETASUN maila hurrengo aspektuetan 1etik 10era (1 “Batere ez” izango da, eta 10 “Erabat”)

Ahora valore su grado de SATISFACCIÓN con los siguientes aspectos de 1 a 10 donde el 1 es Nada satisfecho y el 10 Totalmente satisfecho.

	Batere Nada							Erabat Mucho		
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko parkeak eta aire zabaleko eremuak / Con los parques y zonas al aire libre del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian eta herritik kanpo mugitzeko era / Con las formas de transporte para moverse dentro y fuera del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko etxebizitza / Con la vivienda del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian zure erlazioa, familia, auzotarrak, lagunak, etab. / Con relación con la familia, los vecinos, amigos, etc.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian Gizarte-partaidetza (boluntario-lana, elkartegintza) / Con las oportunidades de participación social (voluntariado, asociacionismo) que ofrece su municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian zure aisialdiaz gozatzeko duzun era / Con la forma en la que disfruta de su tiempo libre en el municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko pertsona helduenganako errespetua eta gizarteratzea / Con el respeto y la inclusión de las personas mayores en la vida de su municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian pasatzen denaren komunikazio eta informazioa / Con la forma de comunicación e información que recibe de lo que ocurre en el municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko gizarte eta osasun-zerbitzuak / Con el funcionamiento de los servicios sociales y sanitarios del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



Zure laguntza behar dugu herria toki lagunkoiagoa izan dadin.

Nos gustaría contar contigo para hacer de tu pueblo un lugar más amigable.

Gehitu ekimen honetara!

¡Súmate a la iniciativa!

- Herria hobetzeko martxan jarriko diren ekimenetan parte hartu nahi dut**
Deseo participar en las acciones ciudadanas puestas en marcha
- Proiektuari buruzko informazioa jaso nahi dut**
Deseo recibir información de los avances del proyecto

Izena / Nombre:

Helbide elektronikoa / Correo electrónico:

Telefonia / Teléfono:

Eskerrik asko zure laguntzagatik



Elkarrekin guztiontzako herri bat eraikiko dugu!

www.euskadilagunkoia.net

Info: info@euskadilagunkoia.net

Contacto Ayuntamiento

.....

INKESTAREN AZTERKETA

Inkestako datuen azterketa egiteko, pakete estatistiko desberdinekin lan egin daiteke (adib.: SPSS, Excel). Datuen **oinarrizko ustiapen estatistika** egin behar da, bereziki azterketa estatistiko deskribatzailean oinarritutakoa (maiztasunak).

Inkestaren azterketan jarraitu beharreko faseak

Erabili beharreko prozedura estatistikoak zehazteko azterketa plan baten garapena.

Laginaren informazio deskribatzailea ateratzea.

Aldagai bakoitzerako azterketa unibariatua egitea.


Azterketa bibariatua egitea: laginaren aukeren araberako kontingentzia taulak (sexua, adina).

Azpitaldeen artean alderaketak egitea.

Txostenak inkestatik ateratako informazioa barne hartzen duten taulak eta grafikoak izango ditu. Emaitzen txostenean beti adierazi beharko da **inkesta ez dela esanguratsua, laginketarik egin ez delako**.

Datuak errazago erabiltzeko eta aztertzeko, Excel formatuko fitxategi bat dago (Datuak sartzeko lagunkoitasun inkesta matrizea) www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak webguneko lanerako materialean. Bertan, herritarrek osatutako galde-sortetako bakoitzaren emaitzak jaso ahal izango dira. **Inkestako datuak ateratzeko laguntza behar baduzu, jarri Matia Institutuko taldearekin harremanetan: info@euskadilagunkoia.net**

Inkestaren emaitzen grafikoan eta taulen aurkezpenaren adibidea:





	Batere ez	Gutxi	Hala-nola	Nahikoa	Oso	ED/EE
Atsegina	0,9	5,9	17,4	50,7	23,7	1,4
Garbia	2,7	12,8	41,6	37,0	4,6	1,4
Zaratatsua	3,7	26,0	37,0	22,4	10,0	0,9
Merkea	14,2	22,4	49,8	8,2	2,7	2,7

3 eranskinean (diagnostikorako materialak), emaitzen txosteneko edukien adibideen fitxa bat agertzen da.

Diagnostikoaren txostena egin ondoren, Euskadi Lagunkoia sarera bidali behar da: info@euskadilagunkoia.net

1. PAUSOA: DIAGNOSTIKOA ETA PLANA > DIAGNOSTIKOA > HOBETZEKO EREMUAK

HOBETZEKO EREMUAK

Lehenengo etapan (Diagnostikoa) aztertuko informazioa funtsezkoa izango da hobetzeko eremuei buruzko txostena egiteko. Taldeetan, foroetan, elkarrizketetan eta inkestetan hautemandako hobetzeko eremu guztiak bilduko dira. Hobetzeko eremu horietan lehentasunak ezarriko dira, interes talde desberdinetan duten presentziagatik eta beren gizarte eraginagatik.

Egin beharreko hobekuntzak eremuen eta azpieremuen arabera antolatuko dira. Jarraian, hobetzeko eremuen eredu eskema bat ikus daiteke:

Hobekuntza eremuen egituraren ereduak

Eremua	Azpieremua	Alderdi positiboa	Hobetzeko	Proposamena
Aire zabaleko espazioak eta eraikinak	Parkeak	Balorazio positiboa jaso dute	Komun publikoetako ekimapendu falta	Komun publikoak jartzea
		Behar adina daude	Adinekoentzako parkeen falta	Ariketa fisikoa egiteko ekipamendua jartzea
			Adineko pertsonen gutxi erabiltzen dituzte	Estalitako guneak jartzea, euria egiten duen egunetan erabiltzeko

www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak webguneko lanerako materialean, hobekuntza eremuei buruzko txostenaren egituraren eredu fitxa dakarren dokumentu bat dago.

Hobetzeko eremuen dokumentua osatu ondoren, Euskadi Lagunkoia sarera bidali behar da: info@euskadilagunkoia.net



DIAGNOSTIKOA > HOBETZEKO EREMUAK > LAGUNKOITASUN PLANA

LAGUNKOITASUN PLANA

Diagnostikoa eta hobetzeko eremuei buruzko dokumentua abiapuntutzat hartuta “udalerriko lagunkoitasun plan” bat egingo da, parte-hartze saioetan bildutako eta eztabaidatutako ekarpenen ondorio gisa. Bertan, **helburuak eta jarduketa ildoak** jasoko dira, baita gauzatu beharreko proiektuen **proposamenak** ere.

Dokumentu hau udal arduradunei edo dagozkion ekintza zuzentzaileak martxan jartzeaz arduratzen diren beste erakunde batzuei aurkeztuko zaie, horien **bideragarritasuna** aztertu dezaten eta, azkenik, udaleko eremu desberdinek beren gain hartutako hobekuntzak barne hartzen dituen ekintza plana egin dezaten. Ekintza plan hori bere garapena ebaluatzea ahalbidetzen duten funtsezko elementuetan laburtu behar da.

Parte-hartze eta adostasun prozesuaren ondoren, ekintza plana gauzatuko da. Plana **8 ikerketa eremuen arabera egituratuko da**, eta proiektuaren garapenean nabarmendu diren beste eremu batzuk ere sartu ahal izango dira. Hona hemen egituraren adibide bat:

Lagunkoitasun Planaren egitura

Eremua	
Esku-hartze ildoak	
Helburua	
Programa	
Hartzaileak	
Arduraduna	
Gauzatze data	
Udaleko eremua	

3. eranskinean: (Diagnostikorako materialak) planaren egituraren fitxa bat sartu da, adibide gisa.

Udalerriko Lagunkoitasun Plana egin ondoren, Euskadi Lagunkoia sarera bidali behar da (info@euskadilagunkoia.net), OMEra bidal dezaten (behar beharrezkoa da Mundu Sarean parte hartzeko).



2. PAUSOA EKINTZEN EZARPENA

Etengabeko hobekuntza ziklo honen bigarren fasea Lagunkoitasun Planean zehaztutako ekintzak martxan jartzean datza. Ekintza horiek 2 urteko denbora aldi batean jar daitezke martxan, udalerraren gauzatze aukeren arabera.

Jarraian, Euskadi Lagunkoiaren baitan udalerrietan martxan jartzeko asmoz diseinatutako zenbait jardunbide egoki jaso dira, adibide gisa. Jardunbide egoki horietako batzuk dagoeneko gauzatu dira udalerrri pilotuetan, eta beste batzuk oraindik gauzatzeke daude. Udalerrriek orientazio gisa erabil ditzakete jardunbide horiek, eta udalerrri bakoitzera egokitu ahal izango dira, beren idiosinkrasiaren arabera. Kostu txikikoak dira eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen dituzte herritarrek parte hartzeko 2.0 metodo gisa.

Jardunbide egoki, ekintza edo programa horiek 8 esku-hartze/ekintza eremuen arabera sailkatu ditugu hemen; horietako batzuek eremu bati baino gehiagori erantzun diezaiekete edo eremu batean baino gehiagotan koka daitezke.

2015ean Euskadi Lagunkoia Jardunbide Egokien zerrenda ikusi ahal izango da web orrialdean, aipatutako zehaztasun metodologikoarekin, behar duenak erabil dezan.

Parte hartzen duten udalerriek proiektu honen baitan martxan jartzen dituzten ekintzei buruzko informazio erabilgarri guztia bidali beharko dute info@euskadilagunkoia.net helbidera, proiektu honetako Jardunbide Egokien Basea handitzeko eta informazioa OMErekin partekatzeko helburuarekin.



1) AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

Nire auzoa maite dut

Deskribapena: aldizka udalerrian barrena ibiltzen diren eta udalari zer hobekuntza egin behar diren jakinarazten dioten adin guztietatik pertsonak gidatutako lantaldeak osatuko dira.

Helburuak: hobetzeko proposamenak detektatzea, espazio publikoak berreskuratzea, herritarren parte-hartzea sustatzea, auzoko gizarte sareak indartzea eta herritarren eta udalaren arteko komunikazio bide bat ezartzea.

Hartzaileak: 50+ langabetuak, adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak eta herritarrak, oro har.

Parte hartzen duten eragileak: elkarteak eta udala.



Toki lagunkoien mapa

Deskribapena: toki lagunkoien mapak Nire auzoa maite dut programaren osagarri gisa balio du. Web plataforman oinarritzen da eta herritarren parte-hartzerako 2.0 modalitatea da. Herritarrek tokien mapaketa egitean datza, horien lagunkotasun mailaren arabera (parkeak, kaleak, eraikinak, etab.).

Helburuak: herritarren parte-hartzea eta gizarte erantzunkidetasuna sustatzea.

Hartzaileak: herritarrak.

Parte hartzen duten eragileak: elkarteak eta udala.

Esteka honetatik sar zaitezke: <http://euskadilagunkoia.net/eu/esperientzien-mapa>

HASI SAIOA | ERREGISTRATU

f t v e

euskadi lagunkoia Sustraietatik

ES | EU

Bilatu...

EUSKADI LAGUNKOIA | ALBISTEAK | **ESPERIENTZIEN MAPA** | UDALERRIAK | EKIMENAK | LAGUNSAREA | PRENTSA BULEGOA

Hemen zaudete: [Hasiera](#) > Esperientzien Mapa

ESPERIENTZIEN MAPA

Euskadiko hainbat pertsonak aukeratutako toki lagunkoien irudiak biltzen dituen mapa da.

Zeu zara maparen benetako protagonista!

Zure ustez lagunkoia den edozein leku proposa dezakezu: auzoa, udalerrria, hiria, txoko zehatza... Alegia, zure iritziz pertsoneri hurbiltzeko eta konektatzeko aukera ematen dien guneren bat, horien guztien arteko bizikidetzaren hobetza duena.

> PROPOSATU TOKI BAT

November 2014

27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

JASO BULETINA >

DENBORA BANKUA

Zure denbora beste pertsona baten denborarekin trukatzeko datza.

Denboraren Bankuan, ordainketa unitatea denbora da. Ordu bat beste ordu batekin trukatzeko da beti. Helburua denbora jarduera probetxugarriak eta erabilgarriak egiteko erabiltzea da.

AZKEN BERRIAK

Kategoria: **Lagunkoia**

Zahartzaro aktiboa eta osasungarria izateko gida

Kategoria: **Lagunkoia**



2) GARRAIOA

Gidari Lagunkoia

Deskribapena: autobus gidariei zuzendutako prestakuntza ikastaroa, garraio lagunkoia sustatzeko.

Helburua: garraio publikoko gidarien sentsibilizazioa sustatzea, adineko pertsoneri eta dibertsitate funtzionala duteneri arreta egokiagoa emateko helburuarekin, alderdi horren inguruko gaitasunak emango dizkien prestakuntza teoriko-praktiko baten bidez.

Hartzaileak: udalerriko eta herri arteko autobus gidariak.

Parte hartzen duten eragileak: garraio enpresak eta udala.

Garraio lagunkoiaren gida

Ibilgailu kolektiboetako gidarien prestakuntzarako gida bat egitea aurreikusten da, lagunkotasunaren eremuko. Gida hau formatu digitalean egingo da, ikastaroa online egin ahal izateko eta beren lagunkotasuna areagotu nahi duten udalerrri eta enpresa guztientzako eskuragarri egoteko.

Ikastaroa egin ondoren, garraio/gidari lagunkoiaren ziurtagiriak emango dira.



3) ETXEBIZITZA

Etxebizitza eta ingurune lagunkoien gida

Etxebizitza eta ingurune lagunkoia egokitzeari eta eraikitzeari buruzko gida bat jarriko da udalerrien, eragileen eta enpresen esku.

Auzokoen arteko laguntza: Auzokoa Lagun

Deskribapena: auzoetako gizarte sarearen eta eraikin bateko bizilagunen arteko laguntzaren alde lan egiten duen herritarren ekimen bat da. Helburua egungo gizartean jasandako aldaketaren ondorioz (familietan, auzokoen artean eta komunitatean) sortu diren beharrei erantzuten saiatzeko sare solidarioak sortzea da. Zehazki, auzokoen artean egu-





neroko zereginak elkartrukatzean datza (adib.: entxufeak aldatzea, bonbillak aldatzea, erosketak egitea, landareak ureztatzea, etab.).

Helburua: auzo/eraikin bateko pertsonen bizi kalitatea hobetzea, auzokoen artean laguntza elkartrukatuz eta auzoetako gizarte sareak, auzokoen arteko laguntza eta bizitzako etapa guztietan elkartasuna sustatuz; baita, aldi berean, auzo biziagoak eta seguruagoak sortuz ere.

Hartzaileak: auzo komunitateak, langabetuak, adineko pertsonak, bakarrik bizi diren pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta herritarrak oro har.

Parte hartzen duten eragileak: auzokoen komunitateak, auzo elkarteak eta udala.



4) PARTE-HARTZEA ETA GIZARTE SAREA

Denboraren Bankua

Deskribapena: Denboraren Bankua jarduerak denboraren truke aldatzeko sistema bat da. Denboraren Bankuek gizarte kohesioa, konfiantza, adiskidetasuna, elkartasuna eta bazkide diren pertsonen arteko tratua ona sustatzen dute. Gizartera iritsi berri direnen inklusiorako tresna dira, belaunaldien arteko trukea indartzen dute eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen dute, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan.

HelburuaK:

- Elkarrenganako laguntza sustatzea.
- Genero berdintasuna sustatzea.
- Bazkideen autoestimua hobetzea.
- Isolamendua eta bakardade sentimenduak saihestea.
- Kideek beren buruak errealizatzeko beharrei erantzuten laguntzea.
- Pertsona bakoitzari bere gaitasunak, baliabideak eta trebetasunak aitortzea.
- Familia eta gizarte harremanak sustatzea.
- Komunikazioa hobetzea, gizarte mailan eta belaunaldien artean.
- Elkartearen zerbitzu soziokulturalen eskaintza zabaltzea eta finkatzea.
- Adineko kideen zahartze subjektiboa atzeratzea eta prozesu horretan laguntzea, erabilgarriagoak sentitzen baitira eta beren gaitasunak aitortzen baitzaizkie.

Hartzaileak: adineko biztanleak, langabezian daudenak, bakarrik bizi direnak eta herritarrak oro har.

Parte hartzen duten eragileak: udala, elkarteak, auzokoen komunitateak.

Denboraren Bankuko ZIKLOAK

ETENGABE HAZTEN DEN HARREMANEN ZIRKULUA



Euskadi Lagunkoia proiektuak "Online Denboraren Bankua" tresna jarri du euskal udalerrri guztien esku. Tresna hori proiektuaren web orrialdean eskura daiteke, programa honen euskarri gisa (<http://euskadilagunkoia.net/eu/denboraren-bankua>).

Beren udalerrian Denboraren Banku bat martxan jartzeko interesa duten pertsona eta eragile guztiei zuzendutako prestakuntza jardunaldi bat egitea aurreikusten da, bankua kudeatzeko eta erabiltzeko beharrezko gakoak emateko.



5) HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ENPLEGUA

Aurrez aztertutako programa batzuk eremu honetan ere sar daitezke, herritarren parte hartzea sustatzen baitute:

- Nire auzoa maite dut
- Toki lagunkoien mapaketa



6) ERRESPETUA ETA INKLUSIOA

Establezimendu Lagunkoia

Deskribapena: Establezimendu Lagunkoia programak aholku bidezko hezkuntza kanpaina bat barne hartzen du, kostu txikiko edo kosturik gabeko praktikak eskaintzen dituena. Kanpainaren helburua enpresei adin nagusiagoko bezeroak erakartzen laguntzea da, pertsona guztientzako ingurune lagunkoia sortuz. Ikastaroa egiten duten establezimenduak "Lagunkoia gara" bereizgarri lortzen dute; bereizgarri horrek, beren lokalean hobekuntza txikiak egiteko eta beren arretaren kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen duten establezimenduak identifikatzen ditu.

Ikastaro honetan beste modulu bat ezarri da, establezimenduen jabeek eta arduradunei narriadura kognitibo arina duten bezeroak detektatzen, tratatzen eta horien autonomia sustatzen laguntzeko.

Helburuak: sektore pribatua sartzea lagunkoitasunaren mugimenduan, establezimendu lagunkoien sare bat sustatuz.

Hartzaileak: establezimenduen jabeak eta arduradunak.

Parte hartzen duten eragileak: merkatarien elkarteak, adineko pertsonen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarteak, establezimenduak eta udala.

Ekimen hau zabaltzeko, liburuxka bat diseinatu da eta ekimena martxan jarri nahi duten udalerrri guztien esku dago (www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak webguneko lanerako materialean eskuragarri: www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak: Liburuxkak)





Establezimenduentzako prestakuntza ikastaro hau bertaratuta edo online egin daiteke, web orrialdearen bidez: <http://euskadilagunkoia.net/eu/izan-lagunkoia/establezimendu-lagunkoia>

Prestakuntza egiten duten establezimenduen arduradunek eta/edo jabeek konpromiso bat sinatzen dute proiektuarekin eta "Lagunkoia gara" zigilua lortzen dute, beren establezimenduen ateetan edo leihoetan jartzeko. Horrez gain, establezimendu horiek Esperientzien Mapan (<http://euskadilagunkoia.net/eu/esperientzien-mapa>) eta laster egingo den Establezimendu Lagunkoien Gidan agertuko dira.

Ondarea

Deskribapena: ekimen hau proiektu dokumental bat da, bideo formatuan Euskadiko lurralde osoko adineko pertsonen esperientziak biltzen dituena, bertako ondare immateriala eta kulturala transmititzeko helburuarekin.

Ondarea ataleko lan dokumentalak gutxi gorabehera 5 minutuko 12 bideo barne hartzen ditu, adineko pertsona protagonista bakoitzarenak. Bideo bakoitzak sakoneko elkarrizketak eta ohiko egun batean egiten duten eguneroko bizitzako irudiak jasotzen ditu.

Helburuak:

- Euskal ondare immateriala transmititzea. Euskal kulturako ohiturek eta esanahiek forma hartzen dute pertsona protagonisten biografietan.
- Euskal gizarteko adineko pertsonen, bertako parte gisa, duten rolari balioa ematea; izan ere, garrantzi berezia dute, Euskadiko ohituren eta balioen transmisore gisa.

Parte hartzen duten udalerrriak antzeko programak egitera animatu nahi dira, bertan bizi diren adineko pertsonen beren hitzez transmiti dezaten udalerrriaren edo eskualdearen bereizgarri diren gaien inguruko ondarea (erreferentziatzko lekuak, errezetak, hizkuntza, lanbideak, etab.).





7) KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Estereotipoei buruzko gida

Zahartzaroari lotutako estereotipoak gainditzeko gida bat egingo da, eta udalerrri, eragile eta, oro har, herritar guztientzako eskuragarri egongo da.

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik web ataria

Web ataria Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimenaren plataforma operatiboa da, informazio eta parte-hartze gune nagusi izateko pentsatua.

Atariak Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimena osatzen duten atal guztiak barne hartzen ditu: albisteak, esperientzia lagunkoien mapa, bat egin duten udalerrriak, martxan dauden ekimenak eta ekintzak, "Izan lagunkoia" atala, prentsa bulegoa eta interesa duten pertsonen beren hausnarketak egiteko eta beren denbora beste pertsona batzuei eskaintzeko eta/edo horiekin trukatzeko bi atal (Bloga eta Denboraren Bankua).

Web atariak espazio bat dauka lagunkoitasunean interesa duen pertsona bakoitzarentzat. Atarian izena eman besterik ez duzu egin behar, eta, orrialde pertsonalizatutik, ekintzak proposatu eta ideiak, hausnarketak edo iritziak sarean partekatuko ahal izango dituzu.

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik web ataria pertsona guztientzako informazio eta lan tresna bat izateko pentsatuta dago.

Ekimenarekin bat egin duten udalerriek plataforma erabili ahal izango dute sortutako informazio guztia zabaltzeko eta bertako zenbait atal erabiltzeko, esaterako, Denboraren Bankua, Toki Lagunkoien Mapa eta Newsletter-a.





8) GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

Zahartze aktibo eta osasuntsurako gida



Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Osasun Sailak zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gida bat argitaratu dute elkarren artean. Hemendik aurrera, gida hori funtsezko informazio oinarria izango da Euskadi Lagunkoia Sustraietatik proiekturako eta Lagunsarea sarerako. Gida web atarian ikus daiteke (www.euskadilagunkoia.net).



3. PAUSOA EBALUAZIOA

Ebaluazio prozesuak barne hartuko ditu ebaluazio kuantitatibo bat (bertatik datu alderagarriak aterako dira) eta ebaluazio kualitatibo bat (prozesuaren garapena eta fase guztiak sakonki aztertzeko).

EBALUAZIO ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

Ziklo honetan eman beharreko azken pausoa ebaluazioa da. Udalerrian ekimena garatzean eta martxan jartzean, hainbat adierazle zenbatu behar dira, irizpide hauen arabera: parte-hartze maila, martxan jarritako ekimenen kopurua eta Ekintza Planean ezarritako helburuen betetze maila. Horretarako, hona hemen proiektuarekin bat egin duten udalerriek ebaluazioa egiteko erabil ditzaketan zenbait adierazle:

1 Parte-hartze adierazleak, proiektuaren fase eta etapa desberdinen arabera:

1. Diagnostikoa:

- Bigarren mailako iturrien azterketa:
 - Parte hartzen duten udaleko atal kop.
 - Aztertutako estatistika iturrien kop.
- Herritarren topaketak eta talde fokalak:
 - Parte-hartzaile kop.
 - 65 urte eta gehiagoko parte-hartzaile kop.
 - Pertsona kop., parte-hartzaileen sexuaren arabera.
 - Eragile parte-hartzaileen kop.: elkarteak, GKEak, etab.
- Lagunkoitasun galde-sorta:
 - Parte-hartzaile kop.
 - 65 urte eta gehiagoko parte-hartzaile kop.
 - Parte-hartzaile kop., sexuaren arabera.
 - Eragile parte-hartzaileen kop.: elkarteak, GKEak, etab.

2. Lagunkoitasun plana:

- Plana egiten parte hartu duten udaleko atalak.
- Proposamen kop., udaleko atalen arabera.
- Eragile kop.: elkarteak, GKEak, etab.



3. Ekintzen ezarpena:

- Martxan jarritako ekintza kop.
- Ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kop.:
 - Herritarrak (sexua eta adina)
 - Udala: pertsonak eta atalak
 - Eragileak: elkarteak, GKEak, establezimenduak, etab.

2

Adierazleak helburuen arabera:

1. Lagunkotasun Planetik betetako helburuen portzentajea
2. Lagunkotasun Planetik martxan jarritako ekimenen portzentajea

3

Ebaluazio galde-sorta

Helburua: herritarrek proiektuarekiko duten ezagutza maila eta pertzepzioak.

Erabili beharreko teknika: norberak betetako inkesta.

Unibertsoa: 16 urte eta gehiagoko pertsonak.

Informazio bilketan: udala arduratuko da galde-sortak zabaltzeaz eta jasotzeaz, egokien iruditzen zaizkion bideak erabiliz. Zabaltzeko bideen adibideak:

- Gizarte zentroetan, kultura zentroetan, liburutegian, kiroldegian, etab. uztea.
- Elkarteetara bidaltzea, bazkideek bete dezaten.
- Etxeetako buzoietan botatzea.

Gogobetetze mailari buruzko azken galderen blokea aldez aurreko edo ondorengo ebaluazio tresna gisa azter daiteke, hasierako diagnostikoan erabilitako Lagunkotasun galde-sortan agertzen baita. Modu horretan, inkesta baten eta bestearen artean lortutako emaitzak proiektuaren eraginkortasun adierazle gisa har daitezke.

Galde-sorta Word formatuan duzu www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerriak (ebaluaziorako galde-sorta).



EBALUAZIO GALDE-SORTA CUESTIONARIO DE EVALUACIÓN

Sexua / Sexo	
Adina / Edad	

Jarri X bat galdera bakoitzean nahi duzun laukian, irizpide hauen arabera:

Marque la casilla deseada con una X en referencia a los siguientes valores:

1. Ezer / Nada 2. Gutxi / Poco 3. Nahiko / Regular 4. Asko / Bastante 5. Erabat / Mucho

	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Ezagutza Conocimiento					
Inoiz entzun duzu Lagunkoia terminoa? ¿Ha escuchado alguna vez el término Lagunkoia?	1	2	3	4	5
Badakizu zeri egiten dion erreferentzia? ¿Sabe a qué hace referencia ese término?	1	2	3	4	5
Ezagutze duzu (udalerraren izena) Lagunkoia ekimena? / ¿Conoce la iniciativa (Nombre del municipio) Lagunkoia?	1	2	3	4	5
Ezagutzen duzu..... programa? ¿Conoce el programa.....?					
(Sartu ekimenaren baitan martxan jarritako programen/ekintzen zerrenda) / (Incluir listado de nombres programas-acciones puestos en marcha en el marco de la iniciativa)	1	2	3	4	5

(Udalerriaren izena) Lagunkoia ekimenaren helburua herritarren parte-hartzea eta sektore publikoarena, pribatuarena eta sozialarena sustatzea da, zahartzen ari diren pertsonen bizitzak erraztuko dituzten inguruneak sortzeko eta udalerraren lagunkotasun maila areagotzeko.

(Nombre el Municipio) Lagunkoia es una iniciativa que tiene como objetivo promover la participación ciudadana y del sector público, privado y social para desarrollar entornos de vida facilitadores para las personas que envejecen y aumentar el grado de amigabilidad del municipio.



Hauek dira martxan jarritako programetako batzuk:

- **Sartu programen zerrenda, deskribapen labur batekin eta helburuekin.**

Algunos de los programas puestos en marcha son:

- *Incluir listado de programas con breve descripción y objetivos.*

	Ezer Nada	Gutxi Poco	Nahiko Regular	Asko Bastante	Erabat Mucho
Participación Participación					
¿Le gustaría participar en esta iniciativa? ¿Le gustaría participar en esta iniciativa?	1	2	3	4	5
¿Le gustaría participar en algún programa concreto? ¿Cuál?..... ¿Le gustaría participar en algún programa concreto? ¿Cuál?.....	1	2	3	4	5
Percepciones Percepciones					
¿Le parece útil esta iniciativa? ¿Le parece útil esta iniciativa?	1	2	3	4	5
¿Le parece útil el programa.....? (Incluir listado de programas) ¿Le parece útil el programa.....? (Incluir listado de programas)	1	2	3	4	5





Orain balora ezazu zure ASETASUN maila hurrengo aspektuetan 1etik 10era (1 “Batere ez” izango da, eta 10 “Erabat”)

Ahora valore su grado de SATISFACCIÓN con los siguientes aspectos de 1 a 10 donde el 1 es Nada satisfecho y el 10 Totalmente satisfecho.

	Batere							Erabat		
	Nada							Mucho		
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko parkeak eta aire zabaleko eremuak / Con los parques y zonas al aire libre del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian eta herritik kanpo mugitzeko era Con las formas de transporte para moverse dentro y fuera del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko etxebizitza Con la vivienda del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian zure erlazioa, familia, auzotarrak, lagunak, etab. / Con relación con la familia, los vecinos, amigos, etc.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian Gizarte-partaidetza (boluntario-lana, elkartegintza) / Con las oportunidades de participación social (voluntariado, asociacionismo) que ofrece su municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian zure aisialdiaz gozatzeko duzun era / Con la forma en la que disfruta de su tiempo libre en el municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko pertsona helduenganako errespetua eta gizarteratzea / Con el respeto y la inclusión de las personas mayores en la vida de su municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herrian pasatzen denaren komunikazio eta informazioa / Con la forma de comunicación e información que recibe de lo que ocurre en el municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Herriko gizarte eta osasun-zerbitzuak Con el funcionamiento de los servicios sociales y sanitarios del municipio	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



Zure laguntza behar dugu herria toki lagunkoiagoa izan dadin.

Nos gustaría contar contigo para hacer de tu pueblo un lugar más amigable.

Gehitu ekimen honetara!

¡Súmate a la iniciativa!

- Herria hobetzeko martxan jarriko diren ekimenetan parte hartu nahi dut**
Deseo participar en las acciones ciudadanas puestas en marcha
- Proiektuari buruzko informazioa jaso nahi dut**
Deseo recibir información de los avances del proyecto

Izena / Nombre:

Helbide elektronikoa / Correo electrónico:

Telefonia / Teléfono:

Eskerrik asko zure laguntzagatik



Elkarrekin guztiontzako herri bat eraikiko dugu!

www.euskadilagunkoia.net

Info: info@euskadilagunkoia.net

Contacto Ayuntamiento

.....



EBALUAZIO ADIERAZLE KUALITATIBOAK

Hauek dira programak udalerrian izan duen garapena ebaluatzeko erabil daitezkeen adierazle kualitatiboetako batzuk:

- Prozesuaren barneko ebaluazioa, ekimenak eta emaitzak, proiektuaren esparruan sortutako lan taldeen arabera.
- Proiektuan parte hartzen duten pertsonekin egindako talde fokalak: udaleko arduradunak, elkarteak, herritarrak.
- Ekimenen ebaluazioa, adin guztietako pertsonekin osatutako taldeen eta eztabaida foroen bidez.

Horrez gain, sakoneko elkarrizketak egin daitezke proiektuan nabarmentzen diren liderrekin.

Taldeen eta elkarrizketen helburua ekimenaren garapena aztertzea da. Jarraian, talde edo elkarrizketa horiek gauzatzeko erabil daitezkeen lanerako gidoi bat proposatzen da:

GALDEREN FORMULARIOA

1. Nola baloratzen duzu (udalerraren izena) Lagunkoia ekimena?
2. Ezarritako helburuak betetzen ari direla uste duzu? Zer neurritan?
3. Proiektuaren helburu diren pertsonak edo biztanleak eta aurreikusitako eragileak parte hartu dutela uste duzu?
4. Zer emaitza lortu dira beste eragile batzuekin, elkarteekin eta herritarrekin izandako lankidetzatik?
5. Kudeaketa egokia izan da?
6. Zer iritzi duzu martxan jarritako programei buruz? Beren helburuak betetzen dituzte?
7. Ekimen hau martxan jarri denetik, zure udalerriko lagunkoitasun maila areagotu dela uste duzu?
8. Zer eragin izan ditu programak udalerrian, biztanleen bizi kalitatean, komunitatean, etab.?



4. PAUSOA

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Fase hau aurrekoan hasten da. Ebaluazioaren emaitzak oinarri gisa hartuta, berriz ekiten zaio udalerriko diagnostiko faseari, **etengabeko hobekuntza zikloarekin hasteko**. Modu honetan, hobekuntza espiral bat ezartzen da, eta udalerrriak etengabe ebaluazioak eginez eta hobetuz jarraitzen du, lagunkoitasunari dagokionez.

✓ WHO Age-Friendly Network:

4 FASEko zikloa



Edozein zalantza argitu nahi izanez gero edo aholkularitza behar izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Matia Institutuaren lantaldea jartzen du udalerrien zerbitzura; izan ere, erakunde horrek diseinatu eta garatu du ekimena udalerrri pilotuetan. Horretarako, jar zaitez harremanetan, helbide honen bidez: info@euskadilagunkoia.net

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA KONTSULTARAKO WEB ORRIALDEAK

REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS:

- **Bilboko Udala: Bilbo, uri adeitsua.** Inplikaturako sail desberdinen jarduketa proposamenen txostena. B60+.
- **Donostiako Udala (2014): Donostia Lagunkoia Hiri Plana.** Ekintza Plana egiteko oinarritzko dokumentua. Herri Partaidetza Saila.
- **Vitoria-Gasteiz Udala (2014): Vitoria-Gasteiz, adinekoentzako hiri adiskidetsua.** Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila.
- **Barrio, E., Sancho, M. y Urraco, M. (2009): Donostia-San Sebastián Ciudad Amigable con las personas mayores.** Donostiako Udala.
- **Barrio, E., Sancho, M. (2009): Proyecto Red mundial de ciudades amigables con las personas mayores.** Perfiles y Tendencias aldizkaria, 39. zk. IMSERSO.
- **Global Network Age-Friendly Cities, Ireland's Age-Friendly Counties Programme, The International Federation on Ageing (2011): The Dublin Declaration. Age-Friendly Cities and Communities.** Dublin.
- **IMSERSO (2014): Protocolo de Vancouver, adaptación al contexto de España.** Grupo de Expertos Proyecto Red de ciudades amigables con las personas mayores. IMSERSO.
- **OMS (2007): Guía: Ciudades Globales Amigables con los mayores.** Ginebra.
- **WHO (2002): Active Ageing: A Policy Framework.** Geneva.
- **WHO (2007): Age-Friendly Cities Project Methodology: Vancouver Protocol.** Geneva.



WEB ORRIALDEAK:

- www.euskadilagunkoia.net

Euskadi:

- **Bilbao** (www.bilbao.net):

<http://goo.gl/oxxJun>

- **Donostia-San Sebastián** (www.donostia.org):

<http://goo.gl/irVyQS>

- **Durango** (www.durango-udala.net):

<http://goo.gl/sBlqfJ>

- **Vitoria** (www.vitoria-gasteiz.org):

<http://goo.gl/FaZxHN>





Nazioartekoak:

- **Age-friendly World:**

<http://agefriendlyworld.org/en/>

- **WHO Age-friendly Environments Programme:**

http://www.who.int/ageing/age_friendly_cities/en/

- **Age-Friendly Communities (Canadá):**

<http://www.phac-aspc.gc.ca/seniors-aines/afc-caa-eng.php>

- **Age Friendly Ireland:**

<http://agefriendlyireland.ie/>

- **Age-Friendly New York City:**

<http://www.nyam.org/agefriendlynyc/>

- **Bien vieillir, vivre ensemble (Francia):**

<http://www.social-sante.gouv.fr/espaces,770/personnes-agees-autonomie,776/dossiers,758/bien-vieillir-vivre-ensemble,763/pour-conclure-ce-dispositif,16106.html>

Estatua:

- **Barcelona:**

Ciudad amiga de las personas mayores: <http://www.bcnamigagentgran.cat/>

- **IMSERSO:**

Ciudades Amigables: http://www.ciudadesamigables.imserso.es/imserso_01/ciudades_amigables/index.htm




3



ESKEMA OROKORRA







4



ERANSKINA

- **1. ERANSKINA: Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimeneko udalerrri pilotuak**
- **2. ERANSKINA: Atxikitzeke gutuna**
- **3. ERANSKINA: Lehen pausorako materialak**





1. ERANSKINA

EUSKADI LAGUNKOIA SUTRAIETATIK EKIMENEN UDALERRI PILOTUAK

Ekimenaren pilotaje fase honetan 15 udalerrri piloturekin lan egin dugu; horietatik 9 Añanako Kuadrillakoak (Araba). Udalerrriak Araban eta Gipuzkoan banatuta daude eta ezaugarri desberdinak dituzte: landa eremuko inguruneak eta hiri erako udalerrriak; kostaldekoak eta barnealdekoak; zahartze indize oso altuekin eta biztanleria zahartuaren portzentaje txikiagoekin.



Udalerrriak

Añanako Kuadrilla



8.822 bizt.
%17 + 65
9 udal. 200-3.000 bizt.

Ordizia



9.767 bizt.
%19,4 + 65

Orio



5.524 bizt.
%16,1 + 65

Zumarraga



10.094 bizt.
%23 + 65

Hondarribia



16.795 bizt.
%19 + 65

Idiazabal



2.299 bizt.
%20,2 + 65

Dulantzi



2.870 bizt.
%9,2 + 65

Biztanleria datuak: INE; Biztanleen udal errolda, 2013

Hau da udalerrri pilotuen zerrrenda osoa (ekimenarekin bat egin duten ordenaren arabera aipatu dira):

- Ordizia: guztira 9.767 biztanle ditu eta adineko biztanleriaren kopuruak biztanleria osoaren % 19,4 hartzen du. Hauek hartu dute parte Ordizia Lagunkoia prozesuan:
 - o Udalerrrian bizi diren 219 pertsona, lagunkoitasun galde-sorta betez.
 - o Herritarren topaketetan parte hartu zuten 53 ordiziar.
 - o 12 eragile (ikastetxeak, elkarteak, kiroldegia eta Udala).



- Zumarraga: guztira 10.094 biztanle ditu eta adineko biztanleek guztizko biztanleriaren % 23 osatzen dute. Hauek hartu dute parte Zumarraga Lagunkoia prozesuan:
 - o Udalerrian bizi diren 378 pertsona, lagunkoitasun galde-sorta betez.
 - o Herritarren topaketetan parte hartu zuten udalerriko 64 biztanle.
 - o 11 eragile (ikastetxeak, elkarteak, hezkuntzako esku-hartze mahaia eta Udala).

- Orio: 5.524 biztanle ditu eta adineko biztanleriaren kopuruak biztanleria osoaren % 16 hartzen du. Hauek hartu dute parte Orio Lagunkoia prozesuan:
 - o Udalerrian bizi diren 247 pertsona, lagunkoitasun galde-sorta betez.
 - o Herritarren topaketetan parte hartu duten 97 oriotar.
 - o 9 eragile (ikastetxeak, elkarteak, kiroldegia, Kilometroak eta Udala).

- Añanako Kuadrilla: Kuadrillako 9 udalerrik hartu dute parte (guztira 8.822 biztanle), eta adineko pertsonen kopuruak biztanleria osoaren % 17 hartzen du. Hauek hartu dute parte Añanako Kuadrilla Lagunkoia prozesuan:
 - o 9 udalerrietan bizi diren 260 pertsona, lagunkoitasun galde-sorta betez.
 - o Herritarren topaketetan parte hartu zuten Kuadrillako 72 biztanle.

Udalerri hauek hartu zuten parte:

Añanako Kuadrilla	Biztanleria guztira	+65 biztanleria	+65 biztanleria
Añana	154	45	%29
Armiñón	237	37	%16
Berantevilla	479	118	%25
Erriberagoitia	758	139	%18
Iruña Oka	3.100	334	%11
Kuartango	357	85	%24
Lantarón	937	209	%22
Gaubea	1.044	298	%29
Zanbrana	422	86	%20

- Hondarribia: guztira 19.795 biztanle ditu eta adineko biztanleen kopuruak biztanleria osoaren % 19 hartzen du. Diagnostiko prozesuaren garapen etapan dago.
- Idiazabal: guztira 2.299 biztanle ditu eta adineko biztanleen kopuruak biztanleria osoaren % 20,2 hartzen du. Diagnostiko prozesuaren garapen etapan dago.
- Dulantzi: guztira 2.870 biztanle ditu eta adineko biztanleen kopuruak biztanleria osoaren % 9,2 hartzen du. Diagnostiko prozesuaren garapen etapan dago.

Udalerri horietan egindako lana ezagutzeko, bisita ezazu web orrialde hau: www.euskadilagunkoia.net



2. ERANSKINA ATXIKITZEKO GUTUNA

.....n, 2014ko.....ren.....a

En....., a.....de.....de 2014

Euskadi Langunkoia proiekturako
atxikipen sinadura

Firma de Adhesión al Proyecto
Euskadi Lagunkoia

..... udalerria Eusko Jaurlaritzako En-
plegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatu-
tako “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikiko
zaio, ondorengo helburuekin:

El municipio se adhiere al Proyecto
“Euskadi Lagunkoia” impulsado por el Depar-
tamento de Empleo y Políticas Sociales del Go-
bierno Vasco, con los objetivos de:

- Komunitateko parte-hartze prozesuak sus-
tatzea;
- Herritarren bizi kalitatea hobetze aldera,
udalerraren eskumen alorretan aldaketak
egin daitezen ahalbidetzea;
- Adineko pertsonen herri eta hirietan ongi-
zatea sortzeko duten potentziala aprobe-
txatzea; eta
- Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat sort-
zea;

- Generar procesos de participación comuni-
taria;
- Facilitar la introducción de cambios en las
diferentes áreas competenciales del muni-
cipio a fin de mejorar la calidad de vida de
sus ciudadan@s;
- Aprovechar el potencial que representan
las personas mayores en la vida ciudadana
como generadoras de bienestar; y
- Generar una red de iniciativas de amigabili-
dad en Euskadi;

OMEk ezarritako lan metodologiari eta lau fa-
seko zikloari jarraituz (Plangintza, Ezarpena,
Ebaluazioa eta Etengabeko Hobekuntza).

siguiendo la metodología de trabajo y el ciclo
de cuatro fases establecido por la OMS (Plani-
ficación, Implementación, Evaluación y Mejora
continua).

Alkateak sinatua / Fdo. Alcalde

Iz./Fdo. Lide Amilibia Bergaretex
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria
Directora de Servicios Sociales



3. ERANSKINA

LEHEN PAUSORAKO MATERIALAK

DIAGNOSTIKOA ETA LAGUNKOITASUN PLANA

1. EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK

1.1. Proiektua OMEren esparruan eta zahartze aktiboaren paradigmaren baitan

2. (UDALERRIAREN IZENA) LAGUNKOIA: DIAGNOSTIKOA

2.1. Bigarren mailako iturrien azterketa

- 2.1.1. Datu soziodemografikoak
- 2.1.2. Proiektuak, planak eta programak
- 2.1.3. Eragileak

2.2. EMAITZEN AZTERKETA: Lagunkoitasun galde-sorta eta herritarren topaketak

2.2.1. METODOLOGIA

- 2.2.1.1. Lagunkoitasun galde-sorta: fitxa teknikoa
- 2.2.1.2. Herritarren topaketak: Osaera

2.2.3. DIAGNOSTIKOAK: EMAITZAK

Alderdi orokorrak

1. Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak
2. Garraioa
3. Etxebizitza
4. Parte-hartzea eta Gizarte Sarea
5. Errespetua eta Inklusioa
6. Komunikazioa eta Informazioa
7. Gizarte eta Osasun Zerbitzuak
8. Gogobetetze maila

ONDORIOAK

BIBLIOGRAFIA



LAGUNKOITASUN PLANA

1. Sarrera

- 1.1. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik
- 1.2. Lagunkoitasuna OMEren baitan

2. Helburuak

3. Metodologia

- 3.1. Bigarren mailako iturrien azterketa
- 3.2. Azterketa kualitatiboa
- 3.3. Azterketa kuantitatiboa

4. Udalerriaren diagnostikoa

5. Hobetzeko eremuak

6. Lagunkoitasun plana

- 6.1. Aire Zabaleko Espazioak eta Eraikinak
 - 6.1.1. Estrategiak
 - 6.1.2. Helburuak
 - 6.1.3. Programak
 - 6.1.4. Gauzatze datak
 - 6.1.5. Udaleko eremuak
- 6.2. Garraioa
 - 6.2.1. Estrategias
 - 6.2.2. Objetivos
 - 6.2.3. Programas
 - 6.2.4. Fechas de ejecución
 - 6.2.5. Áreas del Ayuntamiento
- 6.3. Etxebizitza
 - 6.3.1. Estrategiak
 - 6.3.2. Helburuak
 - 6.3.3. Programak
 - 6.3.4. Gauzatze datak
 - 6.3.5. Udaleko eremuak
- 6.4. Parte-hartzea eta Gizarte Sarea
 - 6.4.1. Estrategiak
 - 6.4.2. Helburuak
 - 6.4.3. Programak
 - 6.4.4. Gauzatze datak
 - 6.4.5. Udaleko eremuak



6.5. Herritarren Parte-hartzea eta Enplegua

- 6.5.1. Estrategiak
- 6.5.2. Helburuak
- 6.5.3. Programak
- 6.5.4. Gauzatze datak
- 6.5.5. Udaleko eremuak

6.6. Errespetua eta Inklusioa

- 6.6.1. Estrategiak
- 6.6.2. Helburuak
- 6.6.3. Programak
- 6.6.4. Gauzatze datak
- 6.6.5. Udaleko eremuak

6.7. Komunikazioa eta Informazioa

- 6.7.1. Estrategiak
- 6.7.2. Helburuak
- 6.7.3. Programak
- 6.7.4. Gauzatze datak
- 6.7.5. Udaleko eremuak

6.8. Gizarte eta Osasun Zerbitzuak

- 6.8.1. Estrategiak
- 6.8.2. Helburuak
- 6.8.3. Programak
- 6.8.4. Gauzatze datak
- 6.8.5. Udaleko eremuak

7. Ondorioak

8. Eranskinak

- 8.1. Udalerriko diagnostikoa
- 8.2. Hobetzeko eremuak



EUSKADI LAGUNKOIA WEB ORRIALDEKO ESKEMA

EUSKADI LAGUNKOIA

Zer da?

Sustraietatik

Metodologia

Gida praktikoa **1**

ALBISTEAK

Orokorrak

Tokikoak

Nazioartekoak

ESPERIENTZIEN MAPA

Proposatu toki bat **a**

UDALERRIAK

Udalerriak

Gida praktikoa **1**

Lanerako materiala **2** **3**

EKIMENAK **4**

Ekimenak proposatu

1) Aire zabaleko lekuak eta eraikinak **a**

2) Garraioa

3) Etxebizitza

4) Parte-hartzea eta gizarte sarea **b**

5) Herritarren parte-hartzea eta enplegua

6) Errespetua eta barne hartzea **c** **d**

7) Komunikazioa eta informazioa

8) Gizarte eta osasun zerbitzuak **e**

LAGUNSAREA

Pertsonak

Erakundeak

Establezimenduak

Prestakuntza **c**

Udalerriak **5**

PRENTSA BULEGOA

Prensa oharrak

Multimedia

Deskargak

Harremanetarako

NABARMENA

Non aurkitu gida honetako materiala

1 Gida praktikoa

2 Atxikitzeko gutuna

3 Diagnostikoa

- Topaketen eta atxikitze taldeen gidoia

- Lagunkoitasun galde-sorta

- Lagunkoitasun inkesta

4 Ekintzak:

a. Toki lagunkoien mapa

b. Denboraren bankua

c. Establezimendu lagunkoia

d. Ondarea

e. Zahartze aktibo eta osasuntsurako gida

5 Euskadi Lagunkoia sarearekin harremanetan jartzea



www.euskadilagunkoia.net

info@eskadilagunkoia.net

